

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko otsailaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila (10-21/LEY-00001).

2. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, **2021eko martxoaren 24ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika jarduera arautzen duen lege esparrua ezarri zuen, foru erkidegoko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adinako informazio fidagarria eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Foru lege horren definizioaren arabera, Estatistika Plana tresna egokia da estatistika jarduera, Nafarroako Estatistika Sistemak betetzen duena, sustatu, antolatu eta planifikatzeko.

Foru lege honek Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana ezartzen du. Nafarroako Parlamentuak onesten duen halako seigarren legea da honako hau, eta honekin Nafarroako estatistika sistema sendotu eta indartzeko prozesuari segida eman nahi zaio. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen aurreikuspenen arabera, planaren indarraldian garatu beharreko helburuak ezartzen dira, bai eta horiek lortzeko ekintzak ere, hau da, Nafarroako Gobernuak estatistika jarduketarako onesten dituen urteko programak.

Nafarroako 2021-2024 Estatistika Planak aurreko planetan indarra izan duten printzipioak mantentzen jarraitzen du eta, bereziki, 2011-2016 aldikoari dagozkionak, zeinak administrazio iturriak erabiltzea eta informazioa sexuaren arabera bereiztea hartzen baitzituen kontuan, planaren funtsezko bi helburu gisa. Era berean, eragiketa estatistikoen kudeaketaren eta, bereziki, dokumentazio prozesuen kalitatea hobetzeko helburuarekin jarraitzeko asmoa berresten du.

Plan berri honek helburu horiek indartzen ditu, eta beste berri batzuk gehitzen, Administrazio Publikoak berak eta gizarteak tresnak izan ditzaten beren intereseko esparruak gehiago ezagutzeko eta, ondorioz, kudeaketa tresnak hobekiago izan daitezkeen, betiere premisa hauei jarraituz: kostua ahal den txikiena izatea eta dauzkagun administrazio erregistroei eta bestelako iturriei ahalik eta etekin handiena ateratzea, bikoizketak saihestea, zama administratiboa gutxitzea eta bermatzea sekretu estatistikoa eta informazio estatistikaren eskuragarritasuna, azkartasuna eta erabilgarritasuna.

Horrez gainera, gizarte eragileen parte-hartzearekin ezarritako lantaldeetan oinarrituta abiatu den parte-hartze prozesuak bide bat ematen du haien informazio eskeak aurkezteko eta planaren edukia haien beharretara gerturatzeko.

Plan honen helburu nagusietako bat Adierazle Estatistikoaren Sistema Publiko (AESP) bat sortzea da; haren xedea izan behar du prozedura integratu bat izatea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio osoarentzat, haren bidez Foru Komunitateko Administrazioaren memorietan, jarduketa planetan edo zabalkunde edo plangintza tresna guztietan dauden adierazle estatistikoak eskuratzeko eta eguneratuta mantentzeko, haien beharra dagoenean. AESP horretan adierazleak modu progresiboan sartzen joanen dira Planaren indarraldian, eta, horretarako, zenbait gai landu beharko dira, hala nola adierazleak dokumentatzea (Nastatek 2020an argitaratutako "Fitxa estatistikoak egiteko gida" oinarritzat hartuta), horiek egiteko informazioa ematen duten iturriak Nafarroako Estatistika Planean txertatzea eta automatizazioarako prozedurak. Amaierako helburua da AESPk espazio bakar bat osatzea, non eskura izanen baititugu adierazle estatistikoak, Nafarroako edozein esparrutako egungo egoera ezagutzeko eta politika publikoak ebaluatzeko bide emanen digutenak, lurralde eta sektoreetako berariazko atariak kaltetu gabe.

Orobat, Nafarroako Estatistika Planaren helburuak adierazle sistema bat baliatuz ebaluatzeko sistema bat sartzen da aurrenekoz.

Estatistika ofizial guztia Nafarroako Estatistika Institutuaren web-orriaren bitartez eskuratzeko ahalko da. Nafarroako Gobernuaren departamentuen informazio estatistikoa orri horretan ere jasoko da, horrek galarazi gabe departamentu bakoitzak bere zabalkunde sistemak izatea.

Horrez gain, foru lege honek ezartzen ditu Nafarroako Gobernuaren eta estatuko nahiz nazioarteko entitate publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren instituzionalerako harremanak, bai eta Nafarroako Estatistika Institutuak plan hau betetzeko izanen dituen eginkizunak ere.

Lehen xedapen gehigarrian jasotzen da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen aldaketa, egokitu behar baita 2016ko apirilaren 2016an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsi zuten 2016/679 Erregelamendura; izan ere, erregelamendu horrek pertsona fisikoen babes arautu zuen, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe utzi zuen 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), bai eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ere. Halaber, eguneratzen dira zehapenatarako aurreikusitako zenbeteoak eta arautzen dira departamentutako estatistika batzordeak, barne koordinazioarako organo gisa.

Datuen babesari buruzko indarreko araudira egokitzeko behar hori bera dela eta, aldatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 96. artikulua, bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den moduan.

Azkenik, foru lege honen eranskin gisa, eragiketa estatistikoak eta informazio administratiborako iturrien inventarioa jasotzen dira, bakoitza Nafarroako Gobernuaren zein departamentuari atxikita dagoen adierazita, bai eta planaren indarraldian, beharrezkoa bada, sartuko diren eragiketa estatistiko berriei buruzko dokumentazioa ere, eta, azkenik, 2021-2024 Estatistika Planaren helburuen ebaluazioa neurtzeko adierazleen zerrenda.

1. artikulua. Onespena.

Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana onesten da.

2. artikulua. Edukia.

Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana Nafarroako Administrazioaren estatistika jardueraren antolatzen duen bitartekoa da. Administrazioak egiten dituen informazio estatistikoak biltzen ditu, eta zehazten du horietatik zein egin beharko diren 2021-2024 laurtekoan, gobernuaren unitateen edo, zentzu orokorrean, gizaritearen beharrei erantzuteko, eragiketa estatistiko gisa identifikatzen direnak. Horrez gainera, honakoak zehazten ditu: esparru juridikoa, helburuak eta haiek garatzeko tresnak, urteko programak, eta planaren betetze-mailaren jarraipena egiteko ahalbidetuko duen ebaluazio sistema.

3. artikulua. Denbora-eremua.

Honen bidez onesten den Nafarroako Estatistika Planak 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arteko indarraldia izanen du. Dena dela, plan hau iraungitzean plan berri bat onetsi ez bada, hurrengo indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarrita dauden epe edo aldiengatik salbuetsi beharrekoak diren eragiketei dagokienez.

4. artikulua. Estatistikako urteko programak.

1. Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana garatzeko, urteko programak prestatuko dira; haietan, urtero egin beharreko eragiketak zehaztuko dira.

2. Estatistikako urteko programetan sartzen ahalko dira planean aurreikusirik ez dauden eragiketak, baldin eta sartzen diren programan azaltzen badira sartzeko arrazoiak, baldintza hauek bete beharko dituztenak:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Oinarrizko proiektu tekniko bat izatea, IV. eranskinean dagoen ereduaren arabera, haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2 b) artikuluan ezarritako zehaztapenak, agertzen dituen, egin beharreko jardura estatistikoen fidagarritasuna bermatzeko.

c) Lege honetan eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean aurreikusitako kalitatezko eta legezko printzipioak betetzea.

3. Betiere, eragiketa horiek urteko estatistika programetan sartzeko eta gauzatzeko, aurrekontu eta antolaketa aldetik eskueran dauden bitartekoaren arabera jokatuko da.

4. Estatistikako urteko programetan jasotzen diren eragiketa estatistikoak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialtzat hartuko dira, eta plan honetan onetsitako eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

5. Nafarroako Estatistika Institutuak eskatzen zaizkion laginak prestatuko ditu, Foru Komunitateko Administrazioaren esku izanik, beharrezkoak diren datu guztiekin datu-bilketaren xedeko komunikazioa ezartzeko; bakar-bakarrik estatistika planean edo dagozkion urteko programetan onetsitako eragiketa estatistikoetarako.

6. Estatistikako urteko programek, halaber, Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioaren eguneratzeak jasotzen ahalko dituzte, foru lege honen 11. artikuluan definitzen direnak; II. eranskinak jasotzen du horien zerrenda. Horretarako, beharrezkoa izanen da horiek dokumentatzea Nafarroako Estatistika Institutuak eskura jarriko duen fitxa metodologikoaren bidez.

7. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, Urteko Estatistika Programa onetsiko du programari dagokion urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

8. Urteko Estatistika Programa bakoitzaren indarraldia urte naturala izanen da. Hala ere, hurrengo plana onetsi arte luzatuko da, beren izaera dela-eta jarraitutasuna behar duten eragiketarako.

9. Estatistikako Urteko Programa bakoitzak, onesten den unean, adierazi beharko ditu bere helburuak, haietako bakoitzean lortu beharreko jomugak eta noraino betetzen diren ebaluatzeko adierazleak.

10. Nafarroako Estatistika Institutuak urteko estatistika programa bakoitzaren jarraipen txostena egingen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezko baldin bada; aldez aurretik, Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaio. Txostenetan azalduko da zein den egoera helburuak lortzeko.

5. artikulua. Erantzun beharra.

1. Nafarroako 2021-2024 Estatistika Planeko eragiketak nahitaez bete beharrekoak dira.

2. Nafarroako Estatistika Planak esleituta, eragiketa estatistikoak egiteko eskudantzia duten organoek datu administratiboan iturrietara jo dezakete, horietan barne hartuta datu pertsonal identifikatuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, erakunde autonomoak eta haien menpeko gainerako enpresa eta entitateak dituztenak, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira aginduta dituzten eragiketa estatistikoak egiteko eta bat etortzen badira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuen Babesari buruzko Erregelamendu orokorrean xedatutakoarekin.

3. Nafarroako Estatistika Planeko eragiketarako ematen diren datuak sekretu estatistikoaren araubidearen menpe egonen dira, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan xedatzen denaren arabera.

6. artikulua. Estatistika Planaren helburu orokorra.

Nafarroako 2021-2024 Estatistika Planaren helburu orokorra da Nafarroako esparruei buruzko ezagutza handitzea, beharrezkoak diren estatistikak eginez eragile guztiekin koordinatuta eta baliabide publikoak modu efizientean erabiliz.

7. artikulua. Estatistika Planaren berariazko helburuak.

Helburu orokorra bermatzearren, berariazko helburu hauek ezarri dira.

a) Nafarroako Estatistika Sistemaren elementuen arteko koordinazioa areagotzea.

b) Administrazio Publikoaren eta, oro har, gizartearen eskaerei erantzunen dien informazio estatistikoa izatea, eta erakunde sozialen parte-hartzea sustatzea, haien beharrak ezagutzeko.

c) Nafarroako Gobernuaren departamentuen informazioa sar dadin sustatzea, batez ere haien administrazio erregistroetako, informazio estatistikoa hobetze aldera.

d) Administrazio erregistroak eta beste informazio iturri erabilgarri batzuk helburu estatistikoekin erabiltzea eta berriz baliatzea sustatzea.

e) Estatistika ofiziala politika publikoak aztertu eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko erabil dadin sustatzea.

f) Estatistika ofizialaren kalitatea sustatzea eta, horretarako, prozesuak dokumentatzea eta metadatuak argitaratzea.

g) Informazioaren erabilera erraztuko duen estatistikaren zabalkunderako sistema bat sustatzea.

h) Informazioaren gardentasuna eta independentzia bermatzea, argitalpen egutegi bat hedatuz.

i) Nafarroako Gobernuaren plan eta estrategien informazio eta ebaluazio beharrei erantzunen dien adierazle sistema bat eraikitzea, arreta emanez, bereziki, Garapen Jasangarriaren Helburuen 2030eko Agendako adierazleei.

j) Esparruen arabera bereizitako informazioa ematea, arreta berezia emanez genero ikuspegia, lurraldeari, nazionalitateari eta jaiotze herrialdeari, desgaitasunari eta adinari, diagnostikoak egiteko eta erabakiak hartzeko.

8. artikulua. Nafarroako 2021/-2024 Estatistika Planaren ebaluazioa.

Nafarroako 2021-2024 Estatistika Plana bukatu ondoren, departamentu bakoitzak egindako estatistika lana zehatzuz Nafarroako Estatistika Institutura bidaliko duen memorian oinarrituz, Nastatek ebaluazio proposamena egingen du, Kontseiluak onets dezan, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritakoarekin bat. Ebaluazioa planaren berariazko helburuei erantzunen die.

Helburuen gauzatzeko mailaren jarraipenerako adierazleak IV. eranskinean daude, haietako bakoitzak plan hau bukatzen denean erdietsi beharko dituen jomugekin. Nafarroako Estatistika Kontseiluak aldatzen ahalko ditu adierazleak planean zehar alternatiba egokiagoak daudela iritziz gero.

Nafarroako Gobernuari onets dezan igorri aurretik, dokumentu horiek Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.

9. artikulua. Eragiketa estatistikoak.

Eragiketa estatistikoek kalifikazio hori lortuko dute, Nafarroako Estatistika Institutuak eta erakunde ekoizleak aztertu ondoren. Ondorio horietarako, eragiketa estatistikoak izanen dira gizarte osoaren edo gizartearen sektore baten behar estatistiko identifikatu bati erantzunez betetzen diren jarduerak. Datuak bildu eta prozesatzeko eragiketak diseinatzea eskatzen du, eta bukatzen da kontzeptuaren aldetik mugatu den gai bati buruzko datu agregatu estatistikoak lortzen direnean.

Kasuaren arabera, estatistikak egin daitezke banakako datuen bilketaren bidez, agregatuak erabiliz, edo estatistikaren ekoizpen efizienterako beharrezkoak diren estatistikako azpiegitura lanak izan daitezke.

Kasu guztietan, horiek egiteko helburua estatistikoa da.

Nafarroako Estatistika Institutuak prestatuko du behar den dokumentazio eredu, eta publikoa izanen da.

10. artikulua. Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa.

1. Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa sortuko da, elementu hauekin:

- a) Administrazio jarduketetatik heldu diren informazioak
- b) Administrazio erregistroak
- c) Sintesi eragiketak

2. Elementu horietako bakoitzerako dokumentazio ereduak Nafarroako Estatistika Institutuak egin eta emanen ditu argitara.

11. artikulua. Nafarroako Adierazleen Sistema Publikoa.

Nafarroako Adierazle Estatistikoaren Sistema Publikoa (AESP) sortzen da, Foru Komunitateko Administrazio unitateek behar dituzten adierazle estatistikoak bilduko dituen ingurune bat izateko, zenbait helburutarako, hala nola, egoeraren diagnostikorako, politika publikoen ebaluaziorako eta plangintza tresnetarako edo adierazle horiek behar dituen beste edozein egoeratarako.

Adierazleak informazio sintetikoak dira, zenbakizko datuetan emanak, fenomeno baten edo bere ezaugarrien intentsitatea ezagutzen baliatzen direnak. Bakunak edo konposatuak izan daitezke.

Adierazleak sortzeko iturriak Nafarroako Estatistika Planean edo plangintza estatistikorako beste tresna batzuetan jaso beharko dira.

Adierazleak dokumentatuko dira Nafarroako Estatistika Institutuak egin eta argitara emandako ereduaren arabera.

Nafarroako Adierazle Estatistikoaren Sistema Publikoan (AESP) adierazleak sartzeko, proposamen bat beharko da, artikulua honetan deskribatutako helburuetako batzuetarako beharrezkoa izatean oinarrituta. AESPn adierazle bat sartzeko onartzea Nastati dagokio; ezezkua ematen badu, txosten baten bidez arrazoitu beharko du, kontuan hartuta behar justifikatu gabea, bideragarritasuna, aurkeztutako dokumentazioaren kalitatea edo behar diren baldintzak betetzen ez dituzten iturriak.

Adierazleen dokumentazioaren eta metodologiaren gaineko erantzukizuna adierazle sartzeko eskatzen duten unitateei dagokie, eta Nastati subsidiarioki arituko da, unitateak behar diren baliabide egokiak ez baditu.

Sistema osatzen joanen da Planaren iraunaldian zehar, erabilgarri dauden baliabideen arabera.

12. artikulua. Zabalkundea.

Nafarroako Estatistika Institutuak nagusiki bere web-orria erabiliko du informazio estatistiko guztia eta harekin loturako dokumentazioa zabaltzeko.

Hirugarrenek datuak erabiliz gero iturri estatistikoaren aipamena egin beharko da nahitaez.

13. artikulua. Erakundeen lankidetzaz.

1. Nafarroako Estatistika Institutuak, interesgarria iruditzen bazaio, mota guztietako entitate eta erakundeetara jotzen ahalko du, Nafarroako 2021-2024 Estatistika Planean ezarritako helburuak kudeatzeko.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Estatistika Institutuaren bitartez, lankidetzaz hitzarmenak sinatzen ahalko ditu tokiko, autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko entitateekin, Foru Komunitatean lortutako estatistikak hobetzeko asmoz, estatistikek ordezkagarritasun handiagoa izan dezaten eta Nafarroari buruzko datuen ustiapena osoagoa izan dadin. Akordioak, betiere, Nafarroako Estatistika Institutuaren bitartez izenpetuko dira.

Xedapen gehigarri bakarra. 2021. urteko Estatistika Programaren onespena.

Nafarroako Gobernuak, beranduenik, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean onetsiko du 2021. urteko estatistika programa.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzea.

1. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 5.2 artikuluari letra berri bat, e) letra, eransten zaio. Hona testua:

“e) Informazioa emateko betebeharrak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutako moduan; erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du”.

2. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 9 artikulua. Honela geldituko da testua:

“9. artikulua. Estatistika ofizialen publizitatea.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, estatistika ofizialtzat hartuko dira Nafarroako Estatistika Planean jasotakoak eta Nafarroako Gobernuak onetsitakoak, foru lege honen 28. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2. Zabalkunde orokorra. Estatistika ofizialen emaitzak publiko eginen dira eta modu inpartzial eta zabalean hedatuko dira Estatistika Planean eta Estatistika Urteko Programetan proposatutako desagregazio irizpideen arabera.

3. Berariazko zabalkundea. Eskatzen duenari ematen ahalko zaie:

a) Erabilera bereziak, foru lege honen 12. artikuluan jasotzen den bezala.

b) Banakako datuak, sekretu estatistikoak babestuta ez daudenak, anonimo bihurtu direlako, halako moduan non ezinezkoa baita informazio unitateak identifikatzea eta ez baitute urratzen kasuan kasuko administrazio erregistroen gaineko berariazko arauetan xedatutakoa

Eskaera eta kontsulta espezifiko horiek arrazoituta eta proportzionaltasun irizpideei jarraikiz eginak egon beharko dute, eta erregelamenduz arautuko dira”.

3. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 14 artikulua. Honela geldituko da testua:

“14. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzaz.

Estatistika jardueran baliabide publikoak eraginkortasun eta efizientzia handiagoaz erabil daitezten lortzeko, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika sistemak, bere eskumenen esparruan, sustatu eta lagunduko du lankidetzaz aritzea toki korporazioekin, Estatuko Administrazio Orokorraren estatistika sistemarekin, autonomia erkidegoetakoekin, Europar Batasunarekin eta beste erakunde batzuekin, jarduera estatistikoaren maila guztietan.

Nafarroako Estatistika Institutuak bere gain hartuko du solaskide lanak Administrazio Publikoetako estatistikaren arloko organo zentralerikiko harremanetan”.

4. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 22. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Honela gelditu da:

“3. Datu hauek besterik ez duten direktorioak: izena, identifikatzaileak, tokia, jarduera, tamainaren identifikatzaileak, helbide elektroniko korporatiboak, telefono zenbaki korporatiboak eta bestelako ezaugarri orokorrak, zabalkunde orokorreko erregistroetan edo direktorioetan sartu ohi direnak”.

5. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 24 artikulua. Honela geldituko da testua:

“24. artikulua. Informazioa ematera behartuta dauden pertsonak.

1. Hurrengo apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako pertsonak edo entitateak behartuta daude ematera foru lege honen 23. artikuluan aipatzen den informazioa, eskatzen zaienean.

2. Estatistika bakoitzaren erregulazioak zehaztuko du zein diren informazioa ematera behartuta dauden pertsona edo entitateak, zein diren ere haien izaera fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua, eta nazionalitatea, Nafarroako lurraldean baldin badute edo izan badute bizilekua edo helbidea, edo bertan aritzen badira. Betebehar hori heda daiteke Nafarroatik kanpora egiten diren jardueretara, estatistikaren xederako egoki denean eta haren arau erregulatzailan halaxe aurreikusita dagoenean.

3. Informazio hori osatzen duten datuak intimitate familiar eta pertsonalerako eskubideari buruzko unean uneko indarreko araudiak babestuta daudenean, honakoak bete beharko dira: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, bai eta aplikatzekoa den gainerako araudia ere. Edozein kasutan, datu horiek beti eskatuko dira interes orokorreko arrazoiengatik, eragiketa estatistikoaren helburuekin proportzionalak izateko irizpidearekin eta lortutako informazioen izaera anonimoa babestea ahalbidetzeko beharrezkoak diren bermeekin.

4. Unitate informatzaileen erantzun zama apaltzeko, Nafarroako Estatistika Institutuak eta foru lege honen 34. artikuluan zehaztutako gainerako organo estatistikoek eskubidea izanen dute eskatzeko eta luze gabe eta dohainik eskuratzeko fitxategi eta erregistro administratibo guztietan dauden datuak, datu pertsonal identifikatuak barne direla, bai eta horiek erabiltzeko eta estatistiketan sartzeko ere, estatistikak egin, prestatu eta zabaltzeko beharrezkoak diren neurrian, eta betiere foru lege honetan jarduketa estatistikorako arautzen den esparruaren barruan.

Era berean, Estatuko Administrazio Orokorreko eta haren sektore publiko instituzionaleko organoak eta entiteak beharturik egonen dira eskatutako datu administratiboak igortzera, plan eta programa estatistikoetako eragiketa estatistikoak garatzeko beharrezkoak diren datu pertsonal identifikatuak barne.

Aipatutako administrazio erregistro eta fitxategiei egokiak diren metadatuak erantsiko zaizkie.

5. Nafarroako Estatistika Institutuak, foru lege honen 34. artikuluan zehaztutako gainerako organo estatistikoek eta erregistro eta fitxategi administratiboetako titularrak diren unitateek horretarako behar dien lankidetzak bitartekoak sortu beharko dituzte.

6. Baimena ematen zaie entitate informatzaileei, publikoak nahiz pribatuak izan, kasuan kasuko eragiketa estatistikoaren erregulazioan ezarritakoarekin bat, eragiketa estatistikoaren erakunde hartzaileei lagatzeko, interesdunei adostasuna eskatu gabe, haiei buruz dituzten datu pertsonalak, soilik eragiketa estatistikoak egiteko”.

6. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 26. artikuluko 4. apartatua aldatzen da. Honela gelditu da:

“4. Plan horrek eduki hau izanen du, gutxienez ere:

a) Planaren helburu orokorrak eta hartan aurreikusten den jarduera estatistikoari dagozkion berariazko helburuak.

b) Zehaztutako helburuak lortzeko proposatzen diren eragiketa estatistikoaren eta gainerako elementuen zerrenda

c) Helburuen betetze-maila ebaluatzeko bide ematen duten adierazleak”.

7. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 27 artikulua. Honela geldituko da testua:

“27. artikulua. Estatistikako urteko programak.

1. Nafarroako Estatistika Plana Estatistikako Urteko Programen bidez garatuko da; Gobernuak onetsiko ditu, Nafarroako Estatistika Institutua atxikia duen departamentuko titularrak proposatuta.

2. Urteko Estatistika Programak hurrengo zehaztapen hauek jaso beharko ditu, gutxienez ere:

a) Haien egokitzapena Nafarroako Estatistika Planarekin.

b) Abian diren eta planaren indarraldian ezarri beharreko eragiketa estatistikoak, planari buruzko foru legean eskatzen den dokumentazioa erantsita.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta beste administrazio edo erakunde batzuen arteko lankidetzak akordioen edo hitzarmenen ondoriozko eragiketak adieraziko dira.

3. Estatistikako Urteko Programa Aurrekontuei buruzko Foru Legean sartuta egonen da. Foru lege horrek gaituko ditu kasuan kasuko urteko programa ekitaldi bakoitzean betetzeko behar diren baliabideak”.

8. 28. artikuluko bigarren paragrafoa aldatzen da, hizketa inklusibora egokitzeko. Testu hau izanen du:

“Nafarroako Estatistika Institutua atxikia duen departamentuko kontseilariak proposatuta hartuko du Erabaki hori Gobernuak, betiere Institutuak aurretiaz aldeko txostena eginda, zeinak jasoko baitu Estatistika Plan eta Programetan ezarritako helburu eta betebeharrekin bat etortzea, eta Estatistika Kontseiluari jakinarazi ondoren”.

9. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 30. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio. Hona geldituko da testua:

“4. Ondorio guztietarako, Nafarroako Estatistika Institutuak Nastat izena erabiltzen ahalko du, bakarrik edo Nafarroako Estatistika Institutua izenarekin batera”.

10. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 34 artikulua. Honela geldituko da testua:

“34. artikulua. Departamentuetako estatistika organoak.

1. Estatistikaren garapena sustatzeko, baliabideak arrazionalizatzeko eta estatistika jardueran lankidetzaz errazteko, departamentuek unitate bat izendatu dezakete, estatistikari emana erabat, eta, departamentuko estatistika organoa den aldetik, haren jarduera estatistikoaren koordinazioaren erantzule izanen dena.

Organo horrek bere eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izanen du eta foru lege honetan ezarritako erantzukizun estatistikoari lotuta egonen da, erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen baditu. Erregelamenduz ezarritako da, orobat, departamentuetako estatistika organoek sekretu estatistikoari atxikitako eskubide eta betebeharrak bere gain hartzea onartzeko prozedura.

2. Estatistika organorik ez badago, departamentuek estatistika batzordea eratu beharko dute foru agindu bidez.

Departamentu bakoitzeko estatistika batzordearen eginkizunak izanen dira: jarduera estatistikoaren barne koordinazioa sustatzea, Nafarroako Estatistika Kontseiluan parte hartzea, osoko bilkuran eta lantaldeetan dituen ordezkarien bidez, eta estatistika planen eta estatistikako urteko programen prestaketan eta jarraipenean laguntzea, betiere Nafarroako Estatistika Institutuarekin hartu-emanetan.

Departamentuetako estatistika batzordeek kide hauek izanen dituzte: Estatistika Kontseiluak departamentua ordezkatzen duena, batzordeko burua izanen da; departamentuko idazkari tekniko nagusia batzordeko idazkaria izanen da, eta gainerako kideak informazio estatistikoa sortzen duten edo harekin harreman zuzena duten unitateen arduradunak. Nafarroako Estatistika Institutuaren ordezkari bat ere izan daiteke batzordeko kide, koordinazioan laguntzeko; hizpidea izanen du, baina botorik ez.

Estatistika batzordeak urtean behin bildu beharko dira, gutxienez, Estatistikako Urteko Programaren betetze maila ebaluatzeko eta hurrengo ekitaldiko programan sartu beharreko eragiketa estatistikoak eta gainerako elementuak proposatzeko. Era berean, nahi adina bilera egiten ahalko dituzte, kideen erdiek proposatuz gero. Erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu”.

11. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 36 artikulua. Honela geldituko da testua:

“36. artikulua. Izaera eta osaera.

1. Nafarroako Estatistika Kontseilua Nafarroako Estatistika Sistemako kontsulta eta partaidetza organoa da. Haren helburuak dira estatistika unitateen arteko harremanean laguntzea, bai eta haiek informatzaileekin eta informazio estatistikoaren erabiltzaileekin dutenean ere.

2. Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira”.

12. Aldatu egiten da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 21eko 11/1997 Foru Legearen 37 artikulua. Honela geldituko da testua:

“37. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Estatistika Kontseiluak aholkularitza, kontsulta, partaidetza eta bitartekaritza lanak egingen ditu Nafarroako Estatistika Sistemaren jarduerari dagokionez, erregelamenduz ezartzen den moduan”.

13. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 44. artikularen 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta aurrerantzean testu hau izanen dute:

“1. Arau-hauste arinek 600 eurora arteko isuna izanen dute zehapen.

2. Arau-hauste astunek 601 eta 3.000 euro bitarteko isuna izanen dute zehapen.

3. Arau-hauste oso astunek 3.001 eta 30.000 euro bitarteko isuna izanen dute zehapen”.

14. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 46. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela gelditu da:

“2. Zehapenak jarriko dira Nafarroako Foru Komunitatean zehapen prozedura garatzen duten araeuekin bat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoari jarraituz”.

15. V. titulua, Nafarroako Populazioaren Erregistroa, aldatzen da. Hona testu berria:

“49. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroa sortzea.

Nafarroako Populazioaren Erregistroa sortzen da. Erregistroan datu hauek jasoko dira: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NANaren zenbakia, edo atzeritarren kasuan, agiri horren ordezkia. Datu horiek Nafarroako Foru Komunitateko udal guztietako biztanleen erroldetan ageri direnak izanen dira.

50. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak lortzea.

Nafarroako Populazioaren Erregistroko datu pertsonalak Estatistikako Institutu Nazionalak emanen ditu, hauekin bat: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoen babesa arautu zuena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrrik gabe utzi zuena Datuak babesteko erregelamendu orokorrari buruzko 95/46/EE Zuzentaraua, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

51. artikulua. Pertsonen eskubideak erabiltzea.

1. Pertsona orok Nafarroako Estatistika Institutuaren aurrean erabil ditzake datuetan sartzeko eskubidea, datuak zuzendu eta ezabatzea, haien tratamendua mugatzeko eta datuen eramangarritasunerako eskubideak, aurka egiteko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

2. Nafarroako Estatistika Institutuak ukatzen ahalko ditu datuetan sartzeko eskaerak datuak sekretu estatistikoaren bermek babestuta daudenean.

52. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroaren helburua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organoek Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak erabiltzen ahalko dituzte, foru lege honetan ezarritakoaren arabera estatistika ofizialak egiteko.

2. Nafarroako Populazioaren Erregistroaren helburua da, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organoen eta lurralde honetako biztanleen arteko komunikazioan laguntzea, organo horiek esleiturik dituzten eskumenak erabiltzearen ondoriozko harreman juridiko-administratiboan esparruan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoek erabiltzen ahalko dituzte Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak, beren eskumenak betetzeko beharrezkoak badira, non ukitutakoa ez dagoen horren kontra.

4. Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak Nafarroako Estatistikako Institutuari eskatuko zaizkio. Informazio hori zertarako behar den adieraziko dute eskatzaileek.

5. Nafarroako Estatistika Institutuak foru lege honen 49. artikuluan jasotako datuak besterik ez du emanen.

53. artikulua. Konfidentzialtasuna.

Aurreko artikuluan aurreikusten diren kasuetatik kanpo, Nafarroako Biztanleriaren Erregistroko datu pertsonalak konfidentzialak dira eta haietan sartzeara arau hauek zuzentzen dute: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorriari buruzko 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalen Bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

54. artikulua. Nafarroako Biztanleriaren Erregistroko datuak erabiltzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organoek titulu honetan adierazitako bideetatik lortzen duten informazioa ezin izanen da manipulatu, ez eta laga ere, eta Nafarroako Estatistika Institutuari igorritako eskaeran adierazitako eginkizunetarako baizik ez da erabiliko.

55. artikulua. Segurtasun neurriak.

1. Nafarroako Biztanleriaren Erregistroko segurtasun neurriak Segurtasunaren Eskema Nazionalen aurreikusitakoak izanen dira, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat.

2. Edozein kasutan, 2016/679 (EB) Erregelamenduen 32. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, hartzen diren neurriek segurtasun maila egokia bermatzeko modukoak izan beharko dute”.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea aldatzea.

Aldatu egiten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 96. artikulua, eta aurrerantzean testu hau izanen du:

“96. artikulua. Datuak kontsultatzea eta igortzea.

1. Foru Administrazio Publikoak sartzeko aukera emanen die gainerako administrazio publikoei interesdunen datuetan, bere esku dituenetan, , datuen babesaren arloan indarra duen araudian xedatutakoarekin bat eta zehaztuz, betiere, datu horietan ahalik eta segurtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna babesteko berme handienarekin sartzeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak.

2. Datu horien eskuragarritasuna hertsiki mugatuko da gainerako administrazio publikoek herritarrei eskatzen dizkieten datuetara, halakoak behar dituztenean, dagokien araudiaren arabera administrazio horiek eskumenekoak dituzten prozedurak eta jarduketak izapidetu eta ebazteko.

3. Foru Administrazio Publikoak beharrezko neurriak hartuko ditu eta behar dituen teknologiak sartuko, bere sareen interkonexioa ahalbidetzeko, eta, hala, komunikazio sare bat sortzeko, zeinaren bidez informazio sistemak elkarrekin lotuko baitira eta administrazio publikoen eta bestelako erakundeen artean trukatu ahal izanen baitira informazioa eta zerbitzuak.

4. Horretarako, komunikazio-ingurune itxiak sortzen ahalko dira Foru Administrazio Publikoaren barranean edo horren eta beste administrazio publiko batzuen artean, komunikazioetarako, datuen truke elektronikorako eta dokumentu elektronikoak igortzeko. Lehenbiziko kasuan, zehaztuko dira komunikazioa arautuko duten baldintzak eta bermeak, eta jasoko dira igorle eta hartzaile baimenduen zerrenda eta truketako diren datuen nolakotasuna; bigarrean, administrazio publikoen artean beharrezko hitzarmena sinatuko da”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. eranskina. Eragiketa Estatistikoaren zerrenda

- Departamentua
- Zuzendaritza Nagusia edo unitate parekatua
- Kodea
- Izena
- Gaia
- Azpigaia
- Deskribapena eta helburuak

- Aldagai nagusiak
- Lurralde desagregazioa zabalkundean

II. eranskina. Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa

1. Administrazio jarduketak

- Departamentua
- Zuzendaritza Nagusia edo unitate parekatua
- Kodea
- Izena

2. Administrazio erregistroak

- Departamentua
- Zuzendaritza Nagusia edo unitate parekatua
- Kodea
- Izena

3. Sintesi eragiketak

- Departamentua
- Zuzendaritza Nagusia edo unitate parekatua
- Kodea
- Izena

III. eranskina. Eragiketa estatistiko berriak sartzeko dokumentazioa

[Beharren zehaztapena eta proiektu teknikoa]

IV. eranskina.
Nafarroako 2021-2024 Estatistika Planaren helburuen
betetze maila neurtzeko adierazleak

<i>Helburu berariazkoa</i>	<i>Adierazlea</i>	<i>Jomuga</i>
Nafarroako Estatistika Sistemaren elementuen arteko koordinazioa areagotzea.	Zeharkakotasuna ekoizpenean	+5p ps
Administrazio Publikoaren eta, oro har, gizartearen eskaerei erantzunen dion informazio estatistikoa izatea, eta erakunde sozialen parte-hartzea sustatzea, haien beharrak ezagutzeko.		
Nafarroako Gobernuko departamentuen informazioa sar dadin sustatzea, batez ere haien administrazio erregistroetakoa, informazio estatistikoa hobetze aldera.	Informazioa integratzea	% 1 00
Administrazio erregistroak eta bestelako informazio iturri erabilgarriak helburu estatistikoekin erabil daitezten sustatzea	Administrazio erregistroak erabiltzen dituzten EE	ED/ EDE (%)
Estatistika ofiziala politika publikoak aztertu eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko erabil dadin sustatzea.	NGaren eskaera kopurua handitzea	ED/ EDE
Estatistika ofizialaren kalitatea sustatzea eta, horretarako, prozesuak dokumentatzea eta metadatuak argitaratzea.	GSBMP ereduarekin bat etortzea.	% 1 00
Informazioaren erabilera erraztuko duen estatistikaren zabalkunderako sistema bat sustatzea		
Informazioaren gardentasuna eta independentzia bermatzea, argitalpen egutegi bat hedatuz.	Egutegia duten EEen kopurua	% 1 00
Nafarroako Gobernuaren plan eta estrategien informazio eta ebaluazio beharrei erantzunen dien adierazle sistema bat eraikitzea, arreta emanez, bereziki, Garapen Jasangarriaren Helburuen 2030eko Agendako adierazleei	Adierazleen bat-etortze estrategikoa EPNarekin	% 1 00
Esparruen arabera bereizitako informazio ematea, arreta berezia emanez genero ikuspegiari, lurraldeari, nazionalitateari eta jaiotze herrialdeari, desgaitasunari eta adinari, diagnostikoak egiteko eta erabakiak hartzeko	Desagregazioa, sexuaren arabera Desagregazioa, lurraldearen arabera Desagregazioa, adinaren arabera Desagregazioa, nazionalitatearen arabera Desagregazioa, jaiolekuaren arabera Desagregazioa, desgaitasun egoeraren arabera	% 1 00

I. eranskina. ERAGIKETA ESTADISTIKOAK

DEPARTAMENTUA: Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200229

Izena: Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileei buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030503 Lan merkatuari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Estatistika honek bide ematen du jakiteko zein den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen soldata-masa eta haien ordainsari garbiak, mailaren, sexuaren, adin-tarteen eta lanpostu multzoen arabera, eta zein den enplegatuen kopurua ordainsarien tarteen arabera.

Helburuak:

Estatistika honen helburu nagusia da informazioa lortzea jakiteko zein den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen soldata-masa eta haien ordainsari garbiak, mailaren, sexuaren, adin-tarteen eta lanpostu multzoen arabera, eta zein den enplegatuen kopurua ordainsarien tarteen arabera.

Aldagai nagusiak:

Enplegatuen kopurua, ordainsarien batura, urteko batez besteko ordainsaria, maila, multzokatutako lanpostuak eta sexua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko
Departamentua

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Barne Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200226

Izena: Hildakoak eragin dituzten zirkulazio istripuak Nafarroan

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaiak: 020401 Heriotzak eta hilkortasuna

Azalpena:

Trafikoko istripu hilgarriak Nafarroan

Helburuak:

Nafarroan istripuetan hildakoak zenbatzea

Aldagai nagusiak:

Sexua; adina; ibilgailuaren posizioa; istripuaren ordua; istripuaren lekua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

DEPARTAMENTUA: Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA

Kodea: 2200223

Izena: Prestakuntza jarduerak, NAPIk sustatuak eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei zuzenduak

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaia: 040601 Administrazio publikoa

Azalpena:

Helburuak:

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako prestakuntza jardueren datuak bildu eta aztertzea

Aldagai nagusiak:

Orduak, ikaspostuak, gaitasun agiria eskuratzen dutenak sexuaren arabera sailkatuak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko
Departamentua

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Gazteriaren Institutua

Kodea: 2200433

Izena: Nafarroako Foru Komunitateko emantzipazioari buruzko inkesta

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030801 Gazteria

Azalpena:

Aztertzea nola lortzen duen Nafarroako gazteriak etxebizitzaren emantzipazioa eta zerk eragiten duen horretan (egoera ekonomikoa, lan egoera, etxebizitza, hezkuntza...)

Helburuak:

Jakitea nola lortzen duten etxebizitzaren emantzipazioa Nafarroan bizi eta 16 urtetik 35 urtera bitarte dituztenek eta nola eboluzionatzen duen horrek.

Aldagai nagusiak:

Sexua, adina, udalerrria, lan egoera, emantzipazioa, etxebizitza, ikasketak, laguntzak.

Lurralde desagregazioa zabalkundean: Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Lehendakaritzako, berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Kodea: 2200028

Izena: Salaketak emakumeen aurkako indarkeriagatik

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 031201 Berdintasuna

Azalpena:

Eragiketa honetan jasotzen da zenbat salaketa eta zer salaketa mota aurkezten diren emakumeen kontrako indarkeriagatik Nafarroako polizia kidegoen polizia-etxeetan.

Helburuak:

Helburua da zehazki neurtzea zer maiztasun duten emakumeen kontrako indarkeria motek, emakumeek berek edo hurbilekoek erasotzaileak salatzen dituztenean; hortaz, bazter uzten dira eragiketa estatistiko honetatik salatzen ez diren indarkeria sexistaren manifestazioak.

Aldagai nagusiak:

Indarkeria motak, familiako lotura, seme-alabak, emakumearen adina, emakumearen jaioterria, erasotzailearen adina, erasotzailearen jaioterria, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuak esku hartu duen salaketa jartzean, eta arrazoa esku-hartzeko ala ez.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Herriak

DEPARTAMENTUA: Lurralde Kohesioa

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza

Nagusia

Kodea: 2200221

Izena: Nafarroako errepide sareko istripu eta hildakoei buruzko estatistika

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaia: 040502 Garraioei buruzko beste estatistika batzuk

Azalpena:

Helburuak:

Errepideen sarean izandako istripuen estatistika bat edukitzea, informazioa izateko istripu-tasaren joerei buruz, eta errepideen sareko jarduketak planifikatzeko.

Aldagai nagusiak:

Errepide mota, istripu mota

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Lurralde Kohesioa

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Garraio Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200213

Izena: Garraioaren gaineko estatistika

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040501 Garraio sektorearen jardueraren gaineko estatistikak

Azalpena:

Aztertzea zein den bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren eskaria eta eskaintza Nafarroako Foru Komunitatean, modalitate (trenbidea eta errepidea) eta tipologia desberdinetan.

Helburuak:

Hainbat instituziok eta erakundek ematen duten informazioa jaso eta integratzea (Garraioen Ministerioa, Garraio Zuzendaritza Nagusia, Iruñerriko Mankomunitatea, RENFE, AENA), ikuspegi orokorra emateko Nafarroako Foru Komunitateko garraioaren eboluzioari buruz (salgaien errepide-garraioa, bidaiarien errepide-garraio erregularra, eskualdeko hiri garraioa, trenbide-garraioa, aire-garraioa)

Aldagai nagusiak:

Garraio enpresen kopurua; ibilgailuen kopurua; bidaiarien kopurua; ibilgailuak-km; bidaiariak-km; bidaia kopurua; diru-bilketa; tonak-km: tonak

Oharra: Une honetan ez da bidaiarien sexuaren aldagaia jasotzen garraio operadoreek emandako informazioan.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Foru Ogasuna

Kodea: 2200044

Izena: Sozietateen gaineko zergari buruzko estatistikak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010201 Estatistika fiskalak

Azalpena:

Sozietateen gaineko zergari buruzko estatistikak, Nafarroako Foru Ogasunean zergaldi bakoitzean aurkeztutako aitortenetan oinarritutakoak (S90.; 200.; 220. ereduak).

Sozietateen gaineko zerga tributu zuzeneko eta pertsonala da, sozietateen eta beste entitate juridikoen errenta kargatzen duena, bat etorri Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean xedatutakoarekin edo Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoaren 18. artikulua arabera aplikatu beharreko araudian xedatutakoarekin.

Foru Komunitateak zergadunei eskatuko die (26/2016 Foru Legearen 10. artikulua), Hitzarmen Ekonomikoaren 19. artikuluan ezarritakoaren esparruaren barnean.

Helburuak:

Zergaldi bakoitzerako eskuratzea Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren aitorteneko datu nagusiak, tributu arloko informazio agregatua ezagutu eta aztertzeko.

Aldagai nagusiak:

Azterketako aldagaiak: Aitorpenen kopurua; sozietateen gaineko zergaren magnitude nagusien zenbatekoa, zeinek Nafarroako araudia aplikatzen baitute, Hitzarmen Ekonomikoaren 18. artikulua arabera.

Sailkapeneko aldagaiak: Aitorpenaren egoera; forma juridikoa; jarduera; eremua; aplikatutako araudia Hitzarmen Ekonomikoaren arabera; aplikatutako zifra erlatiboaren portzentajea. Tributu-zorren emaitzaren zeinua. Karga-tasa.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroako

eskualdeak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Foru Ogasuna

Kodea: 2200046

Izena: Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko estatistikak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010201 Estatistika fiskalak

Azalpena:

Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko estatistikak, Nafarroako Foru Ogasunean zergaldi bakoitzean aurkeztutako aitortzen oinarritutakoak (S90.; 200.; 220. ereduak).

Balio erantsiaren gaineko zerga zeharkako tributua da, kontsumoaren gainekoa, kargatzen dituen enpresaburuen eta profesionalen ondasun-emateak eta zerbitzu-emateak, Europar Batasunaren barruko eskurapenak eta ondasunen inportazioak.

Foru Komunitateari dagokio balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpena, honako hau betez: Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoko arauak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean ezarritakoa eta hura garatzeko erregelamenduak.

Helburuak:

Zergaldi bakoitzerako eskuratzea Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako balio erantsiaren gaineko zergaren aitortzeneko datu nagusiak, tributu arloko informazio agregatua ezagutu eta aztertzeko.

Aldagai nagusiak:

Azterketako aldagaiak: Aitortzaileen kopurua; oinarrien zenbatekoa eta sortutako BEZaren kuotak eta BEZ kengarriarena; urteko emaitza.

Sailkapeneko aldagaiak: Likidazio aldia; urteko emaitzaren zeinua.

Lurralde desagregazioa zabalkundean: Ez dago desagregaziorik lurraldearen arabera

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Foru Ogasuna

Kodea: 2200045.1

Izena: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatistikak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010201 Estatistika fiskalak

Azalpena:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estatistikak, urteko aitorpenetan oinarritutakoak (F90 eredu), zergaldi bakoitzean Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutakoak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga tributu zuzeneko, pertsonala eta subjektiboa da, pertsona fisikoen errenta kargatzen duena, kontuan hartu gabe non sortu den eta ordaintzailearen bizilekua edozein dela ere.

Foru Komunitateak Nafarroan ohiko bizilekua duten subjektu pasiboak eskatuko die, bat etorritik Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 9. artikuluan aurreikusitakoarekin.

Zerga arautzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) eta hura garatzeko araudietan.

Helburuak:

Zergaldi bakoitzerako eskuratzea Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenetako datu nagusiak, tributu arloko informazio agregatua ezagutu eta aztertzeko.

Aldagai nagusiak:

Azterketako aldagaiak: Aitorpenen kopurua; aitortzaileen kopurua; zergaren magnitude nagusien zenbatekoa.

Sailkapeneko aldagaiak: Tributazio modalitatea. Aurkezteko modua. Tributu-zorraren emaitzaren zeinua. Likidazio-oinarriaren tarreak. Zerga-esleipenaren aukerak. Sexua.

Lurralde desagregazioa zabalkundean: Ez dago desagregaziorik lurraldearen arabera. Udalerrien arabera PFEZren beste estatistika bat argitaratzen da NFOren webgunean

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Foru Ogasuna

Kodea: 2200045.2

Izena: Ondarearen gaineko zergari buruzko estatistikak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010201 Estatistika fiskalak

Azalpena:

Ondarearen gaineko zergari buruzko estatistikak, Nafarroako Foru Ogasunean zergaldi bakoitzean aurkeztutako urteko aitortzen oinarritutakoak (F80 eredu).

Ondarearen gaineko zerga tributu zuzenak eta pertsonala da, pertsona fisikoaren ondare garbia kargatzen duena, kontuan hartu gabe non dauden ondasun horiek edo non baliatzen ahal diren eskubideak.

Foru Komunitateak eskatuko du, erkidegoa PFEZren ordainarazpena egiteko eskuduna den kasu berberetan (subjektu pasiboak ohiko bizilekua Nafarroan duenean, betebeharraren kasuan). Foru Komunitateak betebeharraren errealarengatik eskatuko du, ondasunen eta eskubideen balio handiena dagokienean Nafarroako lurraldean daudenei edo baliatu behar direnei. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 17. artikulua.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeak arautzen du zerga.

Helburuak:

Zergaldi bakoitzerako eskuratzea Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako ondarearen gaineko zergaren aitortzeneko datu nagusiak, tributu arloko informazio agregatua ezagutu eta aztertzeko.

Aldagai nagusiak:

Azterketako aldagaiak: Aitortzaileen kopurua; zergaren magnitude nagusien zenbatekoa.

Sailkapeneko aldagaiak: Zerga-oinarriaren tarteak. Sexua.

Lurralde desagregazioa zabalkundeetan: Ez dago desagregaziorik lurraldearen arabera

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Foru Ogasuna

Kodea: 2200502

Izena: Tributu bilketa

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: Tributu bilketa

Azalpena:

Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratuta dagoen tributu bilketak agertzen du erakunde horrek bildutako zenbatekoa. Hilaro kalkulatzen eta argitaratzen dira datuak. Koadro horrek informazioa ematen du eskuratutako zenbatekoei buruz, zeinak hauei baitagozkie: aldi horretan eskatutako zergei (tributu bidezko diru-sarrerak epe arruntean), epe arrunt horretatik kanpo eginiko ordainketei (epe exekutiboan, beste departamentu batzuetako tributu bidezko diru-sarrerak edo tributu bidezkoak ez direnak), atzeratutako zorren ordainketei, formalizaziotik datozen diru-sarrerei (Nafarroako Gobernuak eginiko ordainketak, hark sortutako zergengatik: enplegatu publikoen nominen lan-atxikipenak edo erositako horniduren BEZa) eta konpentsazioaren ondoriozko diru-sarrerei (tributu zorrak konpentsazio bidez iraungitzen ahal dira, zergapekoen alde administrazio egintzen bidez aitortutako kredituekin). Diru-sarrera horiek denak diru-bilketa osoaren parte dira. Zergapekoei eginiko itzulketen zenbatekoa kenduta, dela dirutan dela konpentsazio bidez, diru-bilketa likidua da emaitza, koadroan erakusten dena.

Gainera, hiru hilean behin, barnean hartzen da Estatuarekin zeharkako zergek eragindako doikuntzen zenbatekoa, Hitzarmen Ekonomikoaren 65. artikulua betez, hala gure alde aitortutako zenbatekoetan, nola Estuari eginiko transferentzietan.

Informazio hori bereizita aurkezten da zerga mota bakoitzaren arabera, eta gainera, aurreko urteko epe bereko datuak ere aurkezten dira portzentajearen aldaketarekin, konparazioa egiteko.

Helburuak:

Zergekin epe batean bildutakoaren bolumenaren berri ematea.

Aldagai nagusiak:

Kuota likidua; tributu zorra; aitortpenen kopurua; konpentsatutako zenbatekoa; itzuli beharreko kopurua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundearen:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200049

Izena: Liburutegiei buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030901 Estatistika kulturalak

Azalpena:

Estatistikak informazioa ematen du hala jarduerari buruz (funtsak, bisitariak, maileguak...) nola liburutegien egiturazko ezaugarriei buruz (liburutegi mota, azpiegitura eta ekipamendua, langileak, finantzaketa, sarbidea...).

Estatistika honek liburutegietan gertatzen diren biurteko aldaketak neurtzen ditu. Informazioa lankidetzan prestatzen da Estatistikako Institutu Nazionalarekin

Helburuak:

Informazioa ematea honi buruz: liburutegiaren kopurua, bisitariak, erabiltzaileak, funtsak, ekipamendu fisikoa eta giza baliabideak

Aldagai nagusiak:

Liburutegi mota, titulartasuna, finantzaketa, erabiltzaileek zenbat denboratan erabili duten, ekipamendu fisikoa eta informatikoa, automatizazio maila, Internet eta kanporako zerbitzuak, funtsak eta egindako mugimenduak, erabiltzaileen kopurua, aretoko kontsulta zerbitzuak, maileguak eta tipologia, liburutegiaren zerbitzuko langileak, gastu arruntak eta kudeaketakoak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200050

Izena: Liburuaren argitalpen produkzioari buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030901 Estatistika kulturalak

Azalpena:

Informazioa izatea inprimatu, editatu eta jendearen eskura jartzen diren ez-aldizkako argitalpenen kopuruari eta ezaugarriei buruz. Argitalpenaren gaia eta hizkuntza, batez ere. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Nafarroan inprimatutako ez-aldizkako tituluak argitaratzeko produkzioa ezagutzea, oinarrizko ezaugarrien arabera (argitalpenaren hizkuntza eta gaia).

Aldagai nagusiak:

Argitalpenaren probintzia, argitalpenaren hizkuntza, itzulpenaren hizkuntza, orrialde kopurua, argitalpen mota, edizioa, UNESCO gaia, argitalpenaren kategoria, argitalpen urtea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200055

Izena: Biztanleen kopuru ofizialak

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaiak: 020101 Errola eta biztanleria datuak

Azalpena:

Biztanleriaren datu ofizialek kontatzen dute zenbat biztanle bizi diren Nafarroako udalerrietan urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, eta sexuaren arabera nola dauden banatuta ere agertzen dute. Hori osatzeko, ezagutzera ematen dituzte, Etengabeko Erroldaren bidez, zenbait ezaugarri, hala nola adina, nazionalitatea edo jaioterria. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburu nagusia da Nafarroako udalerrietako biztanleen datu ofizialak izatea, sexuaren arabera, urtarrilaren 1a erreferentzia hartuta. Horretaz gain, Etengabeko Erroldaren bidez, beste aldagai batzuk ere aztertzen dira: adina, nazionalitatea, jaioterria eta bizilekua

Aldagai nagusiak:

Adina, jaioturtea, sexua, jaioterria, bizilekua, nazionalitatea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerririk

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200056

Izena: Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua (NBSI-SIPNa) [Lehenago DCPNa]

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaia: 020102 Biztanleriari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Nafarroako biztanleria sailkatzea ezaugarri soziodemografikoen eta ekonomikoen arabera, bai eta familiarren arabera ere (etxearen egitura eta familia mota). Datu-baseak hainbat unitate bilduko ditu: pertsonak, familiak eta hutsuneak, kolektibo guztiendesberdinen azterketara egokitzeko. Hutsuneen bidez, jendearen etxebizitza ere ezaugarritzen ahal da (etxebizitza mota, ekipamendua, azpiegiturak, etab.), habitatzeko baldintzak ezagutzeko.

Helburuak:

Informazio soziodemografikoa izatea Nafarroan bizi direnei buruz, biztanleria errolda tradizionalen pareko xehetasun mailarekin, erantzun ahal izateko datuak eskatzen direnean biztanleriaren azpitalde txikietarako. Nafarroan bizi diren biztanleen edo, oinarrizko zerbitzu jakin batzuk erabiltzeagatik, Nafarroarekin lotura sendoa dutenen datu-base batetik artikulatuko da.

Aldagai nagusiak:

Adina, jaioturtea, sexua, egoera zibila, nazionalitatea, jaioterria, egoera eta desgaitasun mota, zenbat pertsonarekin bizi den, familia mota, familiarren egitura, bizirik jaiotako seme-alaben kopurua, egoera nagusia jarduerari dagokionez, lanbide egoera, oraingo ikasketa maila, lortutako ikasketa mailarik handiena, euskaraz dakien, errenta pertsonala eta etxearena.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200057

Izena: Ugalkortasunari eta jaiotza tasari buruzko estatistika

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaia: 020301 Jaiotzak eta ugalkortasuna

Azalpena:

Estatistika honek Nafarroako jaiotzak zenbatzen ditu, eta honen arabera sailkatzen: amaren eta aitaren adina, ezkontza eta bizikidetzaren egoera, aurreko seme-alaben kopurua eta nazionalitatea, besteak beste. Halaber, jaiotza datuak eta ugaltzeko adinean dauden emakumeak lotzen ditu; horrela, ugalkortasun tasak ezagutzen dira, adinaren arabera, edo seme-alaben batez besteko kopurua emakume bakoitzeko, adierazle nagusi gisa. Informazioa lankidetzan prestatzen da Estatistikako Institutu Nazionalarekin.

Helburuak:

Azterketarako informazioa ematea hazkunde demografikoaren osagai nagusietako bati buruz (jaiotzak) eta informazioa sortzea ugalkortasuna eta jaiotzak aztertzeko.

Aldagai nagusiak:

Amaren eta aitaren ezaugarriak: adina, nazionalitatea, jaioterria, egoera zibila, bizikidetzaren egoera, etab.

Jaiotzen ezaugarriak: okupaturako heina, sexua, nazionalitatea, jaioterria (helbidea, osasun-zentroa...), pisua, bizitasuna, nazionalitatea, etab.

Erditzeari lotutako ezaugarriak: anizkoitasuna, zailtasunik izan den.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200058

Izena: Ezkontzei buruzko estatistika

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaia: 020501 Ezkontzak

Azalpena:

Estatistika honek Nafarroako ezkontzak zenbatzen ditu, eta honen arabera ezaugarritzen: ezkontideen adina, sexua, aurreko egoera zibila eta bizikidetzaren egoera. Bertan bizi direnekin lotura eginez, bide ematen du Nafarroako ezkontzak aztertzeko, intentsitate eta egutegi adierazleak lortuta, honako honi dagokionez: Ezkontzen Indize Sintetikoa (gizon eta emakumeentzat) eta Ezkontzeko batez besteko adina (horren heinaren arabera ere). Informazioa lankidetzan prestatzen da Estatistikako Institutu Nazionalarekin.

Helburuak:

Familia formazio batzuk ilustratzea eta haien kideak ezaugarritzea. Horretaz gain, estatistika honek bide ematen du ezkontzak egungo gizartean duen garrantzia ezagutzeko, eta zer eginkizun eta ezaugarri dituen jakiteko.

Aldagai nagusiak:

Ezkontideen ezaugarriak: adina, sexua, aurreko egoera zibila, nazionalitatea, jaioterria

Ezkontzaren ezaugarriak: mota eta hilabetea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200059

Izena: Hilkortasunari eta heriotzei buruzko estatistika

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigai: 020401 Heriotzak eta hilkortasuna

Azalpena:

Estatistika honek Nafarroako heriotzak zenbatzen ditu, eta hildakoaren aldagai demografikoen arabera ezaugarritzen: adina eta sexua batez ere. Aldi berean, ezagutzera ematen du heriotzen banaketa, udalerrien eta hilabeteen arabera, edo gertatu zen tokiaren arabera. Gainera, estatistika honek hilkortasun datuak eta biztanleak lotzen ditu, eta horri esker, hilkortasun taula laburtuak egin daitezke, eta aldagai hauek kalkulatu: bizi itxaropena adinaren arabera, hilkortasun ratioak sexuaren arabera, tasa estandarizatuak heriotza kausen arabera, etab. Informazioa lankidetzan prestatzen da Estatistikako Institutu Nazionalarekin.

Helburuak:

Azterketarako informazioa ematea hazkunde demografikoaren osagai nagusietako bati buruz (hilkortasuna) eta informazioa sortzea fenomeno hori aztertzeko

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, nazionalitatea, jaioterria, bizilekua, egoera zibila, heriotzaren kausa eta heriotzaren tokia

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200060

Izena: Migrazioei buruzko estatistika

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaia: 020201 Migrazioak

Azalpena:

Migrazioen estatistikak biltzen du zenbat immigrazio jasotzen duen Nafarroak, jatorriaren arabera, eta zenbat emigrazio, helmugaren arabera. Gainera, migratzen dutenak ezaugarritzen ditu honen arabera: adina, sexua, jaioterria edo nazionalitatea. Hiru fluxu mota bereizten dira: Nafarroaren barnekoak (Nafarroako udalerrri batetik bestera), nazionalak (Nafarroatik beste autonomia erkidego batzuetara emigratzea edo beste autonomia erkidego batzuetatik Nafarroara immigratzea) eta nazioartekoak (Nafarroatik beste herrialde batzuetara emigratzea edo beste herrialde batzuetatik Nafarroara immigratzea). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Biztanleen sarrereren eta irteeren bolumena lortzea, baita urteko saldoak ere tipologiaren arabera: barnekoak (Nafarroako udalerrrien artekoak) eta kanpokoak (Nafarroatik beste autonomia erkidegoetara eta/edo atzerrira) eta zehaztea migratzen dutenen ezaugarriak.

Aldagai nagusiak:

Bajaren edo jatorriaren tokia (udalerrria, probintzia, autonomia erkidegoa, herrialdea), altaren edo helmugaren tokia, migrazio data eta migratzailearen datuak (adina, sexua, nazionalitatea, jaioterria).

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200063

Izena: Biztanleriaren gaineko proiektzioak

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaiak: 020101 Errola eta biztanleria datuak

Azalpena:

Biztanleriaren proiektzioek adierazten dute zer biztanleria izanen duen lurralde batek etorkizunean, jeneralean 15 urtetik beherako aurreikuspenarekin. Oinarrizko tresna bat dira planifikaziorako, informazioa ematen dutelako etorkizuneko biztanleriaren ezaugarriei buruz, eta, horrela, aurrea hartzen ahal zaie baliabideak eskatuko dituzten egoerei. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Nafarroako biztanleriaren bolumena eta banaketa aurreikustea, adinaren eta sexuaren arabera, hemendik 20 urtera.

Aldagai nagusiak:

Sexua, adina, nazionalitatea, bizitokia

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200064

Izena: Etxeei buruzko inkesta jarraitua

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030701 Etxebizitza eta eraikinak

Azalpena:

Informazioa biztanleriaren oinarritzko ezaugarri demografikoei buruz: biztanleen etxeak eta bitoki dituzten etxebizitzak. Biztanleriari buruzko datuak ematen ditu honen arabera: sexua, adina, egoera zibila, jaiotzako herrialdea, nazionalitatea, etxeke egoera. Etxeetarako, informazioa ematen du tamainari eta osaerari buruz, eta etxebizitzetarako, berriz, edukitza-erregimenari, azalera erabilgarriari, gelei, eraikuntza urteari eta eraikinaren tipologiari buruz. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Etheen osaera eta etxebizitzaren ezaugarriak ezagutzea.

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, bizikide kopurua, nazionalitatea, tamaina, azalera, edukitza-erregimena

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200069

Izena: Hauteskundeetako emaitzei buruzko estatistikak

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 031401 Hauteskundeetako emaitzak

Azalpena:

Estatistikak jasotzen du zer emaitza izan den Nafarroako hautesleek parte hartutako hauteskundeetan

Helburuak:

Erakustea zer emaitza izan den hauteskundeetako prozesuetan, botoei, jarlekuei eta hautagai-zerrendeiei dagokienez

Aldagai nagusiak:

Hautagai-zerrendak

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Errola-ataletik beherako unitateak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200070

Izena: Gizarte eta bizi baldintzei buruzko inkesta

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030101 Bizi baldintzen gaineko inkestak

Azalpena:

Gizarte eta bizi baldintzei buruzko inkestak zenbait alderdi zehazten ditu Nafarroako herritarren bizi baldintzei buruz. Inkestak aldian-aldian heltzen die osagai hauei, besteak beste: familiaren osaera, etxearen ezaugarriak, lan arloa, gizarte-harremanak, osasun egoera, etab.

Helburuak:

Biztanleriaren bizi baldintzak aztertzea eta gizarte adierazleen eskariari erantzutea.

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, etxearen tamaina, ikasketa-maila, lotura jarduerarekin, familiaren egitura, familiaren errenta, lotura jarduerarekin, bizitokia, euskaraz dakien, denboraren erabilera, etab.

Lurralde desagregazioa zabalkundean: Nafarroa 2000 Zonifikazioaren, LAP eremuen eta antzekoen agregazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200071

Izena: Familien aurrekontuei buruzko inkesta (FAI-EPF)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030201 Etxeen gastuak eta kontsumoa

Azalpena:

Familien aurrekontuei buruzko inkesta (FAI-EPF) Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duen inkesta zaharrenetakoa da, helburu duena informazioa eskuratzea kontsumo gastuen izaerari eta destinoari buruz eta etxeetako bizi baldintzen zenbait ezaugarri buruz. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionalak dator.

Helburuak:

Lehentasunezko helburuetako batzuk:

-Estimazioak lortzea etheen urteko kontsumoaren gastuaren agregaturako eta hura sailkatzea etxearen aldagai batzuen arabera.

-Kalkulatzeko zenbat aldatzen den kontsumoaren gastuaren agregatua urtetik urtera.

Gainera, lehentasunezko helburuen artean nabarmendu behar dira, beren garrantziagatik, inkestako erabiltzaile nagusien behar zehatzekin lotutako bi: gastuaren kalkulua kontsumo pribatua lortzeko tresna gisa.

Bigarren mailako helburua da ikertzaileen eta, oro har, gizarte adierazleen sistemaren eskura jartzea gizartearen ardurako zenbait arlori buruzko datu estatistikoak (ekipamendua, etxebizitza, elikadura, osasuna, irakaskuntza, turismoa). Horri heltzeko, urteko modulu telematikoak sartuko dira. Gainera, zenbait aldagai inkestan bertan lor daitezke, hori helburua izan gabe, hala nola etheen edo pertsonen banaketa sailkapeneko aldagai batzuen arabera (sexua, adina, ikasketa-maila, etab.), edo etheen batez besteko tamaina

Aldagai nagusiak:

Egotzitako alokairua, autokontsumoa, etxearen azken kontsumoko gastua (diruzkoa eta diruz kanpokoa), batez besteko gastua etxeko, batez besteko gastua pertsonako, etxe mota

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200072

Izena: Nafarroako familien egoera ekonomikoaren gaineko inkesta

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030201 Etxeen gastuak eta kontsumoa

Azalpena:

Familien kontsumoaren eboluzioa eta kontsumitzaileen konfiantza neurtzea. Eragiketa hiru hilean behin egiten da: martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

Helburuak:

Jakitea zer pentsatzen duten Nafarroako etxeek egoera ekonomiko orokorraz eta bereaz, adierazle kualitatiboak egiteko kontsumitzaileen konfiantzari eta sentimenduei buruz, parekoak direnak Espainiako nahiz Europar Batasuneko antzeko beste adierazle batzuekin. Halaber, etxeen kontsumoaren adierazle bat sortu daiteke, zenbait azterketatan eta Nafarroako Hiruhilekoko Kontabilitatean erabiltzeko.

Aldagai nagusiak:

Honetan oinarritutako indizeak egiten dira: kontsumitzailearen konfiantza, kontsumitzailearen sentimendua, erosketaren probabilitatea, espektatiba ekonomikoak eta familien egoera ekonomikoa.

Sexuaren aldagaia sartzen da kontsumitzailearen konfiantzaren indizean

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200073

Izena: Kanpoko merkataritzari buruzko estatistika

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigai: 010501 Merkataritza EBrekin eta hirugarren herrialdeekin

Azalpena:

Salgaien kanpoko merkataritzari buruzko estatistikak deskribatzen du nolakoak diren merkataritza arloko harremanak herrialdeen artean, eta informazio dimentsioaniztuna ematen du, balioaren eta kopuruen aldetik, sal-erosketen salgaien buruz, oinarri hartuta Estatuko Zerga Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak emandako datuak.

Lortutako datuak alderatzen ahal dira Espainiako, Europar Batasuneko eta Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako esportazio eta inportazioei buruzko informazioarekin.

Helburuak:

Xehetasunez aztertzea ondasunen sal-erosketak Nafarroan, oinarri hartuta Estatuko Zerga Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak emandako datuak. Azterketa horri esker, informazioa lortzen da ondasunen esportazioei eta inportazioei buruz eta eragiketa mota horien ezaugarri batzuei buruz: sektoreak, zer eremu geografikotan/herrialdetan egiten diren kanpoko merkataritzako eragiketa horiek.

Aldagai nagusiak:

Ondasunen esportazioak, ondasunen inportazioak, merkataritzako saldoa, esportazioen destinoko herrialdea, inportazioen jatorrizko herrialdea, salgaiaren kodea (ondasun mota, sektore ekonomikoen arabera eta haiek erabiliko dituzten taldeen arabera multzokatzeko).

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200075

Izena: Nafarroako hiruhilekoko kontabilitatea

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010103 Hiruhileko kontabilitatea

Azalpena:

Nafarroako Hiruhileko Kontabilitatea sintesiko estatistika koiunturala da, helburu nagusia duena analisi bat ematea Nafarroako ekonomiak epe laburrean izanen duen eboluzioaz. Estimazioak ematen ditu ekonomiaren agregatu nagusiei buruz: barne produktu gordina (BPGa) eta haren osagaiak, ikuspegi hauetatik: eskaintza, eskaria, errentak eta enplegua eta errenta nazionala. Estimazio horiek eguneko prezioetan eta bolumenaren aldetik egiten dira (errentaren ikuspegiko estimazioen kasuan, eguneko prezioetan baino ez), baita joera zikloaren aldetik ere.

Helburuak:

Kalkulatzeko zein diren Nafarroako ekonomiaren hiruhilekoko eboluzioa eta agregatu makroekonomiko nagusiak, eskaintzaren, eskariaren, errentaren eta enpleguaren ikuspegietatik.

Aldagai nagusiak:

BPGa, BEGa jarduera sektorearen arabera, barneko eskaria, etxeen eta etxeen zerbitzuko irabazizko gabezi erakundearen (EZIAGE-ISFLSH) azken kontsumoaren gastua, administrazio publikoen azken kontsumoaren gastua, ekipo-ondasunen kapital finkoaren eraketa gordina, eraikuntzako kapital finkoaren eraketa gordina, izakinen aldakuntza, kanpoko eskaria, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, ondasun eta zerbitzuen inportazioak, soldatapeko langileen ordainsaria, ustiatzearen soberakin gordina, enplegua (lanpostu guztiak eta soldatapekoak).

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200076

Izena: Nafarroako input-output esparrua

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010101 Input-output esparrua

Azalpena:

Nafarroako input-output esparrua euskarri bat da, Nafarroako estatistika ekonomikoen sistemari eusten diona. Sintetiko estatistika bat da, jatorriaren eta helburuaren taulen ondoriozkoa, xehe-xehe deskribatzen duena produkzio prozesua eta Nafarroako ekonomiako baliabideen eta enpleguen arteko oreka, produktuen mailan, jarduera arlo homogeneoetarako.

Europako Kontu Ekonomikoen Sistemako (EKS-SEC-2010) metodologia erabiltzen du, bermatzen duena Espainiako kontabilitate nazionalarekin eta nazioarteko emaitzekin konparatu ahal izatea.

Honako hau kalkulatzeko du: produkzioa, tarteko kontsumoak, balio erantsi gordina (BEGa), soldatapeko langileen ordainsaria, ustiatzearen soberakina eta errenta misto gordina eta produkzioaren gaineko beste zerga garbi batzuk, jarduera arlo homogeneoen arabera xehakatuak, zergak eta dirulaguntzak produktuen gainean, azken kontsumoaren gastua, kapitalaren eraketa gordina, esportazioak eta inportazioak. Aldagai guztiak aurkezten dira produktuen arabera xehakatuak, salbu eta enpleguaren, errenten, produkzioaren eta BEGaren agregatuak.

Bost urtean behin prestatzen dira printzipioz, nahiz eta azkenaldikoak ez dira bat etorri horrekin. Izan ere, 2005eko ondoren 2008koak egin ziren, orduan Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN-CNAE) aldaketa izan baitzen eta Espainiako Kontabilitate Nazionalak halako batzuk egin baitzituen; hurrengoak 2010ean izan ziren, Europako Kontuen Sistema (EKS-SEC-2010) berriaren aldaketak gehitzeko, eta EINekin berriz bat egiteagatik. Orain egiten ari den input-output taula 2016koa da, zeinari gehitu baitzaio, funtsean, enpresen egiturazko estatistikan 2015ean hasitako aldaketa; horrek bide emanen du input-output taularekin berriz konparatu ahal izateko, oinarri-urtearekin bat egiteagatik.

Helburuak:

Nafarroako input-output taula sintetiko estatistika bat da, bide ematen duena agregatu makroekonomiko nagusiak kalkulatzeko, xehetasun handiz, Nafarroako ekonomiako jarduera arlo homogeneoen arabera produktuetarako.

Aukera ematen du sistema estatistikoa eskura dauden iturrien balantzea eta berrikuspina egiteko.

Input-output esparrua EKS-SEC-2010ean egiteko, hiru taula egin behar dira:

-Jatorriko eta helburuko taulak

-Input-output taula simetrikoa, jatorriko eta helburuko taulen ondoriozkoa, eta hortik abiatuta kalkulatzeko koefiziente teknikoak (guztizkoak eta barnekoak), Leontiefen alderantzizko matrizeko koefizienteak.

Taula horiek oinarri hartuta, hau lortzen da:

- a) Produkzio kostuen egitura eta produkzio prozesuan sortutako errentarena
- b) Ekonomiaren barnean gertatutako ondasun eta zerbitzuen fluxuak
- c) Ondasun eta zerbitzuen fluxuak munduko beste herrialdeekin

Aldagai nagusiak:

Produkzioa, tarteko kontsumoak, balio erantsi gordina (BEG), soldatapeko langileen ordainsaria, ustiatzearen soberakina eta errenta misto gordina eta produkzioaren gaineko beste zerga garbi batzuk, jarduera arlo homogeneoen arabera xehakatuak, zergak eta dirulaguntzak produktuen gainean, azken kontsumoaren gastua, kapitalaren eraketa gordina, esportazioak eta inportazioak. Aldagai guztiak aurkezten dira produktuen arabera xehakatuak, salbu eta enpleguaren, errenten, produkzioaren eta BEGaren agregatuak. Jarduera arloa (homogeneoa) eta produktua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200077

Izena: Administrazio Publikoen kontuak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010102 Kontu ekonomikoak

Azalpena:

Nafarroako administrazio publikoen urteko kontuak kalkulatzea goranzko metodoekin. Hauen kontuak hartzen ditu barnean: Autonomia Erkidegoa: Nafarroako Gobernua, toki-korporazioak, administrazio zentrala, Gizarte Segurantzaren administrazioak.

Helburuak:

Bide ematen du honako hau aztertzeko: magnitude nagusien eboluzioa, gastuen eta diru-sarreraren egitura administrazio publikoetan eta haien konparazioa, bai lurralde bateko administrazio publiko desberdinen artea, bai ekonomiaren gainerakoarekin.

Aldagai nagusiak:

Gastu eta diru-sarrera hauekin egiten da kalkulua: Merkatuko eta merkatuz kanpoko produkzioa, tarteko kontsumoak, balio erantsi gordina, soldatapekoen ordainsaria, soldatak, enplegatzaileen kargurako gizarte kotizazioak, zergak, ustiatzearen soberakin gordina, jabetzaren errentak, kotizazioak eta gizarte prestazioak, transferentzia arruntak, kapital transferentziak, errenta eskuragarri gordina, azken kontsumoaren gastua, aurrezki gordina, kapitalaren eraketa gordina, finantzaketarako gaitasuna/beharra.

Aldagai desagregatu horiek denak administrazio publikoen sektoreko unitateetan: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki-korporazioak, Nafarroako administrazio zentrala, Nafarroako Gizarte Segurantzaren administrazioa.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundeetan:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200078

Izena: Urteko kontu ekonomikoak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010102 Kontu ekonomikoak

Azalpena:

Urteko kontu ekonomikoak sintesiko estatistika da, Nafarroako ekonomiako agregatu makroekonomiko nagusiak ematen dituena.

BPGa eta haren osagaietako bakoitza neurtzen dira, eskaintzaren, eskariaren eta errentaren ikuspegietatik. Eskaintzaren eta eskariaren agregatu ekonomikoen estimazioak eguneko prezioetan nahiz bolumenaren aldetik egiten dira. Enpleguaren estimazioekin osatzen da, lanpostuekin.

Helburuak:

Kalkulatzea zein den Nafarroako ekonomiaren urteko eboluzioa eta agregatu makroekonomiko nagusiak, eskaintzaren, eskariaren, errentaren eta enpleguaren ikuspegietatik.

Etheen errenta kontua sortzea

Aldagai nagusiak:

BPGa, BEGa jarduera sektoreen arabera, produkzioa, barneko eskaria, azken kontsumoaren gastu guztizkoa, etheen azken kontsumoaren gastu guztizkoa, etheen zerbitzuko irabazi-xederik gabeko erakundeen (EZIAGE-ISFLSH) azken kontsumoaren gastu guztizkoa, administrazio publikoen azken kontsumoaren gastu guztizkoa, kapital finkoaren eraketa gordina, ekipo-ondasunen eta beste produktu batzuen gaineko kapitalaren eraketa gordina, eraikuntzako kapitalaren eraketa gordina, izakinen aldakuntza, kanpoko eskaria, ondasunen eta zerbitzuen guztizko esportazioak, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak Espainiako beste autonomia erkidegoetara, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak munduko beste herrialdeetara (Europar Batasuna eta munduko beste herrialdeak desagregatuta), ondasunen eta zerbitzuen guztizko inportazioak, ondasunen eta zerbitzuen inportazioak Espainiako beste autonomia erkidegoetatik, ondasunen eta zerbitzuen inportazioak munduko beste herrialdeetatik (Europar Batasuna eta munduko beste herrialdeak desagregatuta), soldatapeko langileen ordainsariak, ustiatzearen soberakin gordina/errenta misto gordina, guztizko lanpostuak, soldatapekoen lanpostuak.

Etheen errentaren kontuaren aldagaiak: Produkzioa, tarteko kontsumoak, BEGa, soldatapeko langileen ordainsariak, produkzioaren gaineko zerga garbiak, ustiatzearen soberakin gordina / errenta misto gordina, soldatapeko langileen ordainsaria, jabetzaren errentak (baliabideak eta enpleguak), gizarte prestazioak (baliabideak eta enpleguak), beste transferentzia batzuk (baliabideak eta enpleguak), errenta eskuragarri gordina, gauzazko gizarte transferentziak, errenta eskuragarri gordin doitua.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200079

Izena: Jarduera ekonomikoaren unitateen direktorioa

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010301 Jarduera ekonomikoaren unitateen direktorioak

Azalpena:

Informazio sistema bakar batean biltzen ditu egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatean dituzten enpresa guztiak eta bertan kokatutako unitate lokal guztiak, edonon dagoela ere kasuan kasuko enpresaren egoitza soziala.

Helburuak:

Oinarrizko helburua da laginketa esparrua izatea enpresei zuzendutako inkesta ofizialetarako; informazio estatistikoa sortzeko duen balioa ere bultzatu da. Urtean behin eguneratzen da, informazio sistema berri bat sortzen baita epe bakoitzeko urtarilaren 1eko erreferentziarekin.

Aldagai nagusiak:

Egoera juridikoa, soldatapeko enpleguaren estratua, lurralde kodea, jarduera ekonomiko nagusia, enplegatuen portzentajea sexuaren arabera (posible denean), enpresa esportatzaileak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200080

Izena: Hipotekei buruzko estatistika

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010601 Finantzak eta aseguruak

Azalpena:

Hipoteken estatistikak informazioa ematen du hipoteken eraketari buruz, hau da, erreferentziako hilabetean ondasun higiezin gainean eraten diren hipoteka berrien kopuruari buruz eta hipoteka horiei dagozkien hipoteka-kreditu berrien zenbatekoari buruz. Informazioa ematen du, halaber, hipoteken erregistroko aldaketei edo ezerezteei buruz. Informazio hori guztia zenbait aldagairen arabera desagregatzen da, hala nola hipotekatutako finkaren izaeraren arabera edo entitate mailegu-emailearen arabera. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburu nagusia da eskaintzea zenbat hipoteka berri eraten diren erreferentziako hilabetean ondasun higiezin gainean (landa-lurrekoak, hiri-lurrekoak edo bestelakoak) eta inskribatzen diren jabetza erregistroetan. Zenbatekoa dagokie hipoteka horien hipoteka-kreditu berriei.

Aldagai nagusiak:

Finka guztien gainean eratutako hipotekak, finkaren izaeraren arabera; erregistroko aldaketak dituzten hipotekak finka guztien gainean, finkaren izaeraren arabera eta aldaketa motaren arabera; erregistroan ezereztutako hipotekak finka guztien gainean, finkaren izaeraren arabera.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200083

Izena: Merkataritza-sozietateei buruzko estatistika

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010601 Finantzak eta aseguruak

Azalpena:

Estatistika honek hileroko informazioa ematen du sortutako sozietateei buruz, desegindako sozietateei buruz eta kapital-aldaketak izan dituztenei buruz. Merkataritza Erregistro Zentralak emandako datuak ditu oinarri; hark lurralde nazional osoko informazioa biltzen du, Ceuta eta Melilla barne. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator

Helburuak:

Helburua da sozietateen demografia neurtzea eta informazioa biltzea eraturako sozietateei, desegindakoei eta kapital-aldaketak (kapital gehikuntza) izan dituztenei buruz.

Aldagai nagusiak:

Aldia, merkataritza sozietateak egoeraren arabera (eratuak, kapitala gehitu dutenak edo desegindakoak) eta zergatik desegin diren merkataritzako sozietateak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200086

Izena: Etxe eraikuntzari buruzko estatistika

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040203 Eraikuntzari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Etxe eraikuntzari buruzko estatistika hileroko estatistika publikoa da, Sustapen Ministerioarena, udal guztiei zuzendua. Horiek bete behar dute, egitura ukitzeagatik obra handitzat jotzen den obra bakoitzeko. Proiektua prestatu duten teknikariek bete behar dute, eta udalak, berriz, datu administratiboak (udalaren kodea, atala, barrutia, eskaeraren datak eta lizentzia ematea). Udalak zehazten du obra handia den.

Helburuak:

Eraikitzen ari diren eraikinen ezaugarri nagusiak biltzea: azalera, gela kopurua, erabilitako materialak, etab.

Aldagai nagusiak:

Obra mota, aurrekontua, etxebizitzaren erabilera, azalera, eraikuntzaren tipologia (egitura bertikala, egitura horizontala, estalkia, barneko eta kanpoko itxitura), eraikinen instalazioak, etxebizitzaren ezaugarriak (azalera erabilgarria, gela kopurua, bainugela eta komun kopurua, barneko akaberak, birgaitze mota, etxebizitzaren ezaugarriak, eraispen partziala eta erabatekoa)

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200087

Izena: Eraikuntzaren egituraren gaineko inkesta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040201 Eraikuntzaren egiturazko estatistikak

Azalpena:

Sustapen Ministerioarekin sinatutako lankidetzaren bidez, Nastatek eraikuntzaren egiturazko estatistika prestatzen ahal du urtero, aukera ematen duena eraikuntzaren industriaren aldagai ekonomiko nagusiak ezagutzeko.

Helburuak:

Eraikuntzako jardueren adierazle gisa erabilitako makromagnitude ekonomikoak kalkulatzeko aldagai ugari erabiliz: langileak, negozio bolumena, negozio bolumenaren banaketa obra motaren arabera, produkzioa, tarteko kontsumoak, balio erantsi gordina, soldatapekoen ordainsaria eta inbertsioa.

Informazioa ematen du, halaber, Nafarroako Kontu Ekonomikoak prestatzeko.

Aldagai nagusiak:

Landunak eta soldatapekoak, negozio bolumena, negozio bolumenaren banaketa obra motaren arabera, produkzioa, tarteko kontsumoak, balio erantsi gordina, soldatapekoen ordainsaria eta inbertsioa, denak enpresaren tamainaren arabera eta jarduera taldeen arabera.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200088

Izena: Zerbitzuen sektorearen jarduera-adierazleak

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaia: 040701 Gainerako zerbitzuak

Azalpena:

Zerbitzuen sektorearen jarduera-adierazleek neurtzen dute epe laburrean zer jarduera izan duten finantzaz kanpoko merkatu zerbitzuetako enpresek bi aldagairen bidez: negozio-zifra eta langile landunak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Emaitzak indizeen modura aurkezten dira, aldaketak neurtzeko 2015eko oinarri-urtearen aldean.

Aldagai nagusiak:

Negozio-zifra; enplegua; negozio-zifraren portzentajea; enplegu portzentajea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200089

Izena: Industria-egoeraren gaineko inkesta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040102 Industria sektorearen gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Industria-egoeraren gaineko inkestak geuk egindako inkesta da, 1988tik, manufaktura industriaren hileroko eboluzioa kalkulatzeko duena enpresaburuen iritzien bidez (iritzi onenen eta okerrenen arteko saldoa).

Helburuak:

Industria sektorearen hileroko eboluzioa kalkulatzeko enpresaburuen iritzien bidez (iritzi onenen eta okerrenen arteko saldoa).

Erantzun saldoak prestatzea, bai nazionalak, bai jarduera arloen banaketan arabera; jardueraren 9 arlo desagregatu dira, produzitzen diren ondasunen arabera eta enpresen tamainaren arabera.

Emaitzak alderatzen ahal dira Espainian nahiz Europar Batasunean prestatzen diren antzeko adierazleekin.

Aldagai nagusiak:

Klima industrialak, oraingo eskaeren zorroa, aurreikusitako eskaeren zorroa, barneko eta atzerriko eskaerak (oraingoak eta aurrekusiak), bukatutako produktuen stocka (oraingoa eta aurreikusia), oraingo produkzioa, aurreikusitako produkzioa, ziurtatutako lana, ahalmenaren erabilera (oraingoa eta aurreikusia), produkzioa mugatzen duten faktoreak, aurreikusitako prezioak, enplegua (oraingoa eta aurreikusia), merkatu nazionalaren lehiakortasuna, EBkoarena eta EBz kanpokoarena

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200091

Izena: Industria produktuen gaineko urteroko inkesta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040101 Industria sektorearen gaineko egiturazko estatistikak

Azalpena:

Industria produktuen gaineko inkesta urteroko eragiketa estatistikoa da, helburu duena informazio zehatza eta fidagarria ematea ahalik eta lasterren, Espainiako industria sektoreko zati handi bat estaltzen duten industria produktu batzuei buruz (4000 inguru).

Helburuak:

Hauexek dira inkestaren helburu nagusiak:

1- Informazio osoa eta berria ematea industria sektoreko produktuei buruz eta emaitzak xehetasun handiz eskaintzea, produktu ugari aztertu ahal izateko, baita haien merkatuak eta haien serie kronologikoen eboluzioa ere.

2- Ematen duen informazioak bat egitea guztiz kanpoko merkataritzaren datuei buruzko informazioarekin.

3- Ematen duen informazioak bat egitea guztiz Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoarekin, metodologia komunak erabiliz, fidagarritasunez, azkartasunez eta xehetasunez informazio erabilgarria eskaintzen dituztenak Europar Batasuneko merkatua kudeatzeko.

4- Ahalik eta lasterren ematea urteko industria produkzioaren gaineko informazioa, sei hilabetera, gutxi gorabehera, datuen erreferentziako urtea bukatzen denetik.

Aldagai nagusiak:

Jarduera ekonomikoa; jarduera ekonomiko nagusia; establezimendua; merkaturatutako produkzioa; produkzioa kantitatean; produkzioa balioan; guztizko produkzioa

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200092

Izena: I+Gko jardueren gaineko estatistika

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigaia: 060101 I I+G+b jardueren gaineko inkesta

Azalpena:

Neurtzen da zenbateko ahalegina egin den I+G jardueretan, zehaztuz zer baliabide ekonomiko eta zer giza baliabide erabili dituzten sektore ekonomiko guztiek (enpresak, administrazio publikoak, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, unibertsitateak). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Bi nabarmentzen dira nagusiki: Tresna bat lortzea kudeaketa, planifikazioa eta kontrola egiteko eta erabakiak hartzeko politika zientifiko nazionalean. Estatistika erakundeei ematea eskatzen duten informazioa, nazioarteko araei jarraituz lortu dena eta bide ematen duena herrialdeen artean konparazioak egiteko.

Aldagai nagusiak:

I+Gko gastua, I+Gan enpleguak, sexua, I+Gan lanaldi osoan enpleguak, negozio-zifra, kapital gastuak, gastu arruntak, ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200093

Izena: Enpresetako berrikuntzari buruzko inkesta

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigaia: 060101 I+G+b jardueren gaineko inkesta

Azalpena:

Enpresen datuak biltzen dira egin duten edozein jarduera berritzaileri buruz, dela produktua berritzeaz (ondasunen eta zerbitzuen berrikuntza), dela prozesua berritzeaz (fabrikazio metodoen berrikuntza, emateedo banaketa metodoena, informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoena, eragiketa administratiboena, giza baliabideen antolaketarena, merkataritza jarduerena, etab.). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Informazio zuzena ematea enpresen berrikuntza prozesuari buruz, eta adierazleak prestatzea ezagutu ahal izateko prozesu horretako alderdiak, besteak beste: enpresa berritzaileen helburuak, berrikuntza prozesuaren egitura, botere publikoen egitekoa industria berrikuntzan, ideia berritzaileen sorrera eta berrikuntzaren oztupoak, berrikuntzaren produktuak eta eraginak.

Aldagai nagusiak:

Enpresa berritzaileak; jarduera ekonomiko nagusia; enpresaren neurriak edo tamaina; enplegatutako langileak; negozio-zifra; berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastua; barneko gastua berrikuntzako jardueretan; ondasun materialeko inbertsio gordina; berrikuntza; lankidetzaren berrikuntza.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200094

Izena: Industria produkzioaren indizea

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigai: 040102 Industria sektorearen gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Industria produkzioaren indizea (IPI) adierazle koiunturala da, industria arloen produkzio jardueraren hileroko eboluzioa neurtzen duena (industria arloak Ekonomia jardueren 2009ko sailkapen nazionalean daude (EJSN-CNAE-2009)). Industria establezimenduetara zuzendutako inkesta da; haiek jakinarazten dute zenbat produzitu den adierazlearen saskian hautatutako eta establezimenduak fabrikatutako produktu bakoitzetik. Informazio horri esker, produktu bakoitzaren oinarriko indizeak prestatzen dira, eta, agregazio bidez, EJSN-CNAE-2009an sailkatutako jarduerenak.

Hilero, Nafarroako eta Espainiako indize orokorra argitaratzen da, baita jardueraren desagregazio maila desberdinena ere, EJSN-CNAE-2009ren arabera. Horretaz gain, informazio agregatua argitaratzen da, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera (kontsumo ondasunak, ekipo ondasunak, tarteko ondasunak eta energia). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Industria jardueraren eboluzioa aztertzea argitaratutako indizeen bidez. Hilero argitaratzen dira indizeak eta haien hileroko, urteroko eta metatutako aldaketa tasak, bai indize orokorrerako, bai hainbat desagregaziotarako.

Aldagai nagusiak:

Produkzioa jarduera arloen arabera eta ondasunen helburu ekonomikoa

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200095

Izena: Industria prezioen indizea

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010402 Prezioen beste indize batzuk

Azalpena:

Industria prezioen indizeak helburu du neurtzea zer eboluzio duten fabrikatutako industria produktuek barneko merkatuan saltzen direnean, merkaturatzeko lehendabiziko pausuan, hau da, zer eboluzio duten fabrikatik ateratzeko salmenta prezioek, kanpo daudela garraio eta merkaturatze gastuak eta fakturatutako BEZa.

Industria prezioen indizeak industria sektore guztiak hartzen ditu barnean, eraikuntza kenduta; hau da, erauzketa industria, manufaktura industria, argindarraren eta gasaren hornidura eta uraren horniduraren arloak aztertzen ditu, zeinak EJSN-CNAE-2009ko B, C, D eta E atalei baitagozkie. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Industria prezioen indizearen estatistikaren helburu nagusia da industria prezioen eboluzioa neurtzea. Horretarako, erabilitako diseinuak abiapuntu ditu industria jardura desberdinen egiturak eta haietako bakoitzean gehien merkaturatzen diren produktuen egiturak, oinarri dutenak kasuan kasuko enpresen negozio-zifrak. Osagai horiek eta adierazle honen metodologia osatzen duten beste batzuk eguneratu behar dira maiztasun desberdineko epeetan, industria prezioen indizearen ordezkagarritasunari eutsiko bazaio.

Hilero argitaratzen da Nafarroako eta Espainiako indize orokorra. Horretaz gain, informazio agregatua argitaratzen da, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera (kontsumo ondasunak, ekipo ondasunak, tarteko ondasunak eta energia).

Aldagai nagusiak:

Epealdia, industria prezioen indize orokorra eta ondasunen xede ekonomikoaren arabera.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200097

Izena: Bioteknologiaren erabilerari buruzko estatistika

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigaia: 060101 I+G+b jardueren gaineko inkesta

Azalpena:

Informazioa ematen du bioteknologian dauden gastu eta langileei buruz, ekonomiaren sektoreen arabera. Inkestaren bidez jakiten da zenbat unitatek dituzten bioteknologiari lotutako jarduerak eta zer mozkin sortu duen produktu bioteknologikoen salmentak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburu nagusia da neurtzea zenbateko esfortzua egiten den bioteknologiari lotutako jardueretan.

Hauxe ezagutu behar da: bioteknologiari lotutako zer jarduera mota egiten den ekonomiaren sektore bakoitzean. Zer eremutan duten azken aplikazioa bioteknologiak garatuz lortutako produktuek. Zer baliabide ekonomiko eta zer giza baliabide erabiltzen diren bioteknologiari lotutako jardueran, izan produkzioan edo ikerketan.

Aldagai nagusiak:

Barneko I+G gastua bioteknologian sektorearen arabera, I+Gan enplegatutak bioteknologian, sektorea, langile mota (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), jarduera ekonomikoa, enpresaren neurriak edo tamaina, negozio-zifra,

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200101

Izena: Enpresetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkesta

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigai: 060201 IKTen eskuragarritasunaren eta erabileraren gaineko inkestak

Azalpena:

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak) azkartasunez garatzeak, enpresetan, administrazio publikoetan eta etxeetan gero eta gehiago erabiltzeak, eta, batez ere, Internet nabarmenki handitzeak eragin ekonomiko eta sozial handia izan dute. Informazioaren Gizartearen (IG) gaineko estatistikek arlo estatistiko berri bat eratzen dute berez, aztertzen duena nolako garapena eta ondorioak izan dituen IKTen erabilerak ekonomian eta gizartearen. Zehatzago, IGen gaineko estatistikek barnean hartzen dituzte IKTen produkzioa, erabilerarako prestaketa eta eragina, baita eduki digitaleko zerbitzuak ere. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Enpresetan IKTak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkestak helburu du informazio harmonizatua eta parekatzeko modukoa eskuratzea IKTen erabilerari buruz eta merkataritza elektronikoa buruz Europan. Enpresetatik lortzen dira zuzenean datuak, tratamendurik egin gabe.

EINK biltzen ditu eragiketa estatistiko honi dagozkion datuak, Europako estatistika bulegoaren jarraipenak betez (Eurostat). Jarraipen horiek jasota daude Enpresetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak (IKTak) eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko urteko galdetegiaren erudian. Galdetegiaren eredu horrek aldagai ugari ematen ditu, barnean hartzen dituztenak, besteak beste, alor hauek:

- Informazio orokorra IKTen sistemei buruz.
- Interneteko sarbidea eta erabilpena.
- Merkataritza elektronikoa (e-commerce).

• Ad hoc sartutako moduluak, IKTekin lotutako gai zehatz eta garrantzizkoei buruz. Hauek dira azken urteetan sartutako moduluak: Administrazio elektronikoa (e-government); IKTen espezializazioa (e-skills); Interneteko erabilera mugikorra; konputazioa hodeian (cloud computing); IKTak eta ingurumena; inbertsioa eta gastua IKTetan; irrati-frekuentzia bidezko identifikazioa (RFID); komunikabide sozialen erabilera; informazioa enpresaren barnean integratzea; fakturazioa, IKT segurtasuna; Big Dataren analisia; 3D inprimaketa eta robotika.

Aldagai nagusiak:

Enpresaren jardueraren nagusia, enpresaren tamaina, merkataritza elektronikoa

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200102

Izena: Etxebizitzetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari eta ekipamenduari buruzko inkesta

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigaiak: 060201 IKTen eskuragarritasunaren eta erabileraren gaineko inkestak

Azalpena:

Etxebizitzetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari eta ekipamenduari buruzko inkesta (IKT-E) Europar Batasunak kofinantzatzen duen ikerketa bat da, urteko informazioa biltzen duena etxebizitzetako IKT produktuen ekipamenduari buruz (telefonoa, telebista, ordenagailua, Internet...) eta noraino eta nola erabiltzen dituen jendeak, batez ere Interneten erabilerari eta merkataritza elektronikoiari dagokienez. Informazio hori aldagai demografikoen arabera banakatzen da (sexua, adina, bizilekuaren udalerraren tamaina, etxearen tamaina, etxe mota, bikoteko bizikidetzak eta nazionalitatea), aldagai sozioekonomikoen arabera (etxearen hileko diru-sarrera garbiak, bukatutako ikasketak, lan egoera eta egoera profesionala eta okupazio nagusia) eta bizilekuaren autonomia erkidegoaren arabera.

Orobat, informazioa lortzen da etxebizitzako 10 urtetik 15era bitarteko haur guztiei buruz eta 75 urtetik gorako pertsonen buruz. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

IKT-E inkestaren helburu orokorra da datuak eskuratzea Informazioaren Gizartea deitutakoaren garapenaz eta eboluzioaz.

Inkesta honek helburu zehatz hauek ditu:

-Jakitea informazioaren eta komunikazioaren teknologien zer ekipamendu duten Espainiako etxeek (IKT produktuek: telebista, telefono finkoa eta sakelakoa, ekipamendu informatikoa).

-Jakitea nola erabiltzen duten Internet eta merkataritza elektronikoa Espainiako herritarrek, zer gaitasun eta ezagutza informatiko duten, zer jarduerak egin duten eta zer harreman duten administrazio elektronikorekin.

-Oinarria izatea konparazioak egiteko Espainiaren eta beste herrialde batzuen artean eta nazioarteko erakundeen errekerimenduen erantzutea. Izaera hau duten iturrien artean, bakarra da konparatzeko moduko datuak ematen dituen Europar Batasunaren herrialdeekin eta nazioarteko beste eremu batzuekin

-Autonomia erkidegoen artean konparatzeko moduko informazioa lortzea.

Aldagai nagusiak:

Merkataritza elektronikoa, Interneten erabilera, ordenagailuaren erabilera, familiaren etxebizitza, familiaren etxebizitza nagusia, sexua, adina, etxe mota

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200103

Izena: Nafarroako gizarte babesaren kontuak

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030601 Gizarte babesaren kontua

Azalpena:

Kontabilitateko tresna bat da, bide ematen duena Nafarroako gizarte babesaren sistemen gastuak eta diru-sarrerak zenbatzeko; jaso behar du zenbateko esfortzu ekonomikoa egin duten gizarte jakin bateko instituzio publiko eta pribatuek beharrek eta arrisku sozialek ukitutakoak artatzeko (langabezia, eritasuna edo adinekoak, adibidez).

Helburuak:

Babes sozialaren hedapena eta intentsitatea eta haren finantzaketa zenbatatea, konparazio homogeneoa egiteko beste ekonomia batzuekin.

Aldagai nagusiak:

Kotizazioak, ekarpen publikoak, beste diru-sarrera batzuk, prestazioak, pentsioen onuradunak, prestazio sozialetako gastua; prestazio sozialetako gastua biztanleko; prestazio sozialetako gastua BPGaren gainean

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200104

Izena: Biztanleria aktiboaren gaineko inkesta (BAI)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030501 Okupazioaren eta langabeziaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Biztanleria aktiboaren gaineko inkesta (BAI-EPA) laginketa bidezko hiruhilekoko ikerketa da, Espainiako etxebizitzetan bizi diren herritarrei zuzendua, helburu duena jakitea zer ezaugarri duten herritar horiek lan merkatuari dagokionez. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburu du datuak ematea biztanleriaren kategoria nagusiei buruz lan merkatuari dagokionez (landunak, langabeak, aktiboak, inaktiboak) eta kategoria horien sailkapenak lortzea zenbait ezaugarriren arabera. Aukera ematen du emaitzen denborazko serie homogeneoak egiteko. Horretaz gain, nola erabilitako definizioak eta irizpideak koherenteak diren lan arloan aritzen diren nazioarteko erakundeek ezarritakoekin, datuak konparatzen ahal dira beste herrialde batzuekin

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, lotura jarduerarekin, lortutako ikasketa maila handiena, nazionalitatea, egoera profesionala, azpienplegua, lanorduak, lanaldi mota, kontratu mota, enplegu-aniztasuna.

2009tik aurrera, azpilaginaren aldagai osagarri gisa gehitu zitzaion inkestari enplegu nagusiaren soldaten dezila, hartua dena hautatutako lagina eta Gizarte Segurantzaren eta administrazio fiskalaren (Zerga Agentzia, Nafarroako Foru Ogasuna) iturri administratiboak lotzetik.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200105

Izena: Lan kostuen gaineko hiru hileroko inkesta (LKHI-ETCL)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030502 Soldaten gaineko inkestak

Azalpena:

Lan kostuen gaineko hiru hileroko inkesta (aurrerantzean, LKHII-ETCL) oinarrizko informazio iturria da lan kostu harmonizatuaren indizea (LKHI-ICLA) prestatzeko. LKHI-ICLA euroadierazle bat da, Europako Erkidegoen Estatistika Bulegoak (EUROSTAT), Europako Banku Zentralak (EBZ) eskatuta, Europar Batasuneko estatu kideei eskatzen dizkienetako bat, balio duena aztertzeko, bateratze nominala kontratatuta dagoela, benetako egoerak bateratzen ari diren herrialdeen artean, eta, bereziki, Europan lan kostuak parekatzen ari diren lan unitateko. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

LKHII-ETCL etengabeko eragiketa estatistikoa da, hiru hilerokoa, helburu duena jakitea nolako eboluzioa duen batez besteko lan kostuak langile bakoitzeko eta benetako lanordu bakoitzeko.

LKHII-ETCLk hauxe eman gogo du:

- Batez besteko lan kostua, langileko eta hilabeteko.
- Batez besteko lan kostua, benetako lanordu bakoitzeko.
- Egindako lanaldia eta egin ez dena.

Aldagai nagusiak:

Lan kostua, soldata kostua, beste kostu batzuk, benetako lanorduak, aparteko orduak, ordu osagarriak, egin ez diren lanordu ordainduak, egin ez diren lanordu ordaindugabeak (EINK diseinatzen du inkesta hau, eta ez du aurreikusten sexuaren aldagaia).

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200106

Izena: Lan kostuen gaineko urteroko inkesta

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030502 Soldaten gaineko inkestak

Azalpena:

Lan kostuen hiru hileroko inkestan lortutako emaitzak osatzen ditu, informazioari urteko ikuspegia emateko. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Aurreko urteko hiru hileroko galdetegietan jaso gabe dauden lan kostuen partidak biltzen ditu. Hortaz, urteko batez besteko kostuaren mailak ematen dira langile bakoitzeko, lan kostuaren osagai nagusiak zehaztuta.

Aldagai nagusiak:

Soldata kostua, Gizarte Segurantzako nahitaezko kotizazioak, borondatezko kotizazioak, gizarte prestazio zuzenak, kalte-ordainak kaleratzeagatik, gastuak lanbide prestakuntzan, gastuak garraioan, gizarte gastuak, beste gastu batzuk eta dirulaguntzak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200107

Izena: Soldaten egituraren gaineko inkestak

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030502 Soldaten gaineko inkestak

Azalpena:

Soldaten egituraren gaineko laurteko inkesta eragiketa estatistikoa da, 1995etik aurrera egiten dena Europar Batasunaren esparruan, metodologiarako eta edukietarako irizpide amankomunak erabiliz, estatu kideen artean konparatzen ahal diren emaitzak lortzeko soldaten egiturari eta banaketari dagokienez. Inkestak aztertzen du nola banatzen diren soldatak aldagai ugariren arabera: sexua, okupazioa, jardueraren arloa, antzintasuna edo enpresaren tamaina.

Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta 2004tik aurrera egiten da, eta kalkulatu du zein den urteko irabazi gordina langile bakoitzeko, lanaldi motaren, sexuaren, jarduera ekonomikoaren eta okupazioaren arabera. Nola urteko inkesta ez den egiten laurteko inkesta egiten den urteetan, denborazko serieak argitaratzeko, 2006tik aurrera, urte horietako informazioa osatzen da gainerako urteetarako egiten diren taula berak erantsiz, laurteko inkestatik hartutako informazioarekin. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator, eta Nastatek lagundu du tratamendu batzuetan.

Helburuak:

Laurteko inkestak aztertzen du nola banatzen diren soldatak aldagai ugariren arabera; urteko inkestak helburu bera du, baina gutxiago dira aldagaiak

Aldagai nagusiak:

Sexua, okupazioa, jarduera arloa, antzintasuna, enpresaren tamaina, lanaldi mota, jarduera ekonomikoa, kontratu mota, nazionalitatea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200110

Izena: Turismo-ostatueta okupazioaren gaineko inkesta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaia: 040401 Turismoaren gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Turismo-ostatueta okupazioaren gaineko inkestek informazioa ematen dute bidaiariei, ostatu-gauei eta batez besteko egonaldiari buruz, bizitokiaren herrialdearen arabera, atzerriko bidaiarien kasuan, edo jatorrizko autonomia erkidegoaren arabera, Espainiako bidaiarien kasuan, eta okupazioko establezimenduen kategoriari buruz. Estimazioak ematen ditu, halaber, irekitako establezimenduen kopuruari, plazei, okupazio mailari eta sektoreko enpleguari buruz, establezimenduaren kategoriaren arabera.

Bost establezimendu mota hartzen dira kontuan: hotelak, aterpeak, apartamentuak, kanpalekuak eta landa turismoa. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburua da jakitea nola jokatzen duten zenbait aldagaik, sektore turistikoaren ostatuaren oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko, hala eskaintzaren aldetik nola eskariaren aldetik.

Aldagai nagusiak:

Bidaiariak; Espainian bizi diren bidaiariak; atzerrian bizi diren bidaiariak; ostatu-gauak; Espainian bizi direnen ostatu-gauak; atzerrian bizi direnen ostatu-gauak; batez besteko egonaldia; establezimenduak; plazak; okupazio mailak; enpleguak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

2000

Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200112

Izena: Turismo-ostatuetao prezioen indizeak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010402 Prezioen beste indize batzuk

Azalpena:

Neurri estatistikoak dira, kontuan hartzen dutena enpresaburuek hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei aplikatzen dizkieten prezio guztien eboluzioa. Oinarria 2008 izanik argitaratzen dira.

EINK indize horiek apartamentu, kanpaleku eta landa turismorako ere prestatzen baditu ere, Espainia mailan argitaratzen ditu bakarrik; hortaz, hotelei dagozkienei heltzen zaizkie. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Kontsumoko prezioen indizea ez bezala (KPI), eskaintzaren ikuspegitik dago egina turismo-ostatuetao prezioen indizea, neurtzen baitu nolako eboluzioa izan duten hotelek bezero mota guztiei benetan fakturatutako prezioek (KPIak kontuan hartzen du, soilik, Espainiako egoiliar diren etxeei aplikatutako prezioak). Beraz, ez du neurtzen nolako eboluzioa duten etxeek pagatutako prezioek edo hotelek aplikatutako tarifa ofizialak, ezpada nola jokatzen duten hotelek banaketa bide desberdinen bitartez bezero mota guztiei fakturatutako prezioek (etxeak, enpresak, bidaia agentziak eta tour-operadoreak, izan tradizionalak edo on linekoak).

Aldagai nagusiak:

Hotelen prezioak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200252

Izena: Hilkortasunari buruzko estatistikak, heriotza arrazoen arabera

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 03030401 Gaixotze-hilkortasun tasa

Azalpena:

Estatistika honek jasotzen du nola sailkatzen diren Nafarroan bizi direnen heriotzak, heriotza kausaren arabera, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenarekin bat (GNS-CIE-X). Banaketa erakusten du sexuaren arabera, eta tasa estandarizatuak ere bai, Europako biztanleria estandarren arabera. Gizonezkoen neurritz gaineko hilkortasuna ere jasotzen du. Informazioa lankidetzan prestatzen da Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin eta Estatistikako Institutu Nazionalarekin.

Helburuak:

Ezagutzea zein den heriotza kausen intzidentzia absolutua eta erlatiboa Nafarroan bizi diren herritarren artean.

Aldagai nagusiak:

Heriotza arrazoiak, adina, sexua, heriotzaren lekua

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200282

Izena: Konkurtso-prozeduraren gaineko estatistika

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010601 Finantzak eta aseguruak

Azalpena:

Estatistika honek zenbatzen du konkurtsoko zenbat zordun dauden prozesu motaren arabera. Gainera, aukera ematen du konkurtsopeko enpresak ezaugarritzeko eta sailkatzeko, jarduera ekonomikoaren, tamainaren, negozio bolumenaren eta antzintasunaren arabera. 2021etik aurrera, informazioa Justizia Ministeriotik dator. Lehenago EINTik.

Helburuak:

Konkurtso prozeduraren gaineko estatistikak adierazleak eskaini gogo ditu enpresen egoerari buruz eta koiuntura ekonomikoari buruz, egoera ekonomikoaren azterketan laguntzeko.

Aldagai nagusiak:

Konkurtsopeko zordunaren izaera juridikoa, konkurtsopeko enpresa zer soldatapeko tarteri dagokion, konkurtsopeko enpresaren jarduera ekonomiko nagusia (EJSN-CNAE-2009, atalen arabera), konkurtsopeko enpresaren urteko negozio bolumenaren tarteak, konkurtsopeko enpresa enpresa-talde batekoa den

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200283

Izena: Inbertsio eskariaren gaineko inkesta

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010701 Inbertsioa

Azalpena:

Informazioa biltzen du oinarritzko informazioa izateko, jakiteko zein den enpresen inbertsioa Nafarroan eta haien ezaugarri koiuntural nagusiak; orobat, honako hau kalkulatzeko eta zenbatzeko du: hiruhileko egindako inbertsio bolumena, haren jatorria, inbertsioaren eboluzioa jardueraren sektorearen arabera, enplegu maila eta kasuan kasuko inbertsioaren xede izan diren ibilgetuaren partiden azterketa, zeinak lehentasunezko zat jotzen baitira, hortaz, enpresaren jarduera garatzeko.

Helburuak:

Hiru hilean behin zenbatzea eta aztertzea enpresek Nafarroan egiten duten inbertsioa

Aldagai nagusiak:

Nafarroako inbertsioa, jarduera sektorea, enplegu estratua eta inbertsioa jaso dezaketen partidak.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200297

Izena: Ezkontza-baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen gaineko estatistikak

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigaia: 020601 Ezkontza desagiteak

Azalpena:

Ezkontza-baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen gaineko estatistikak aukera ematen du ezagutzeko zein diren elkarteari amaiera ematen dioten ezkontideen ezaugarri soziodemografiko nagusiak, baita horri lotutako interes sozialeko beste aldagai batzuk, hala nola seme-alabarik duten beren kargura, haien adina, sexua eta nazionalitatea, elkartzearen iraupena, etab. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Informazioa ematen du ezkontza desagiteen bolumenari buruz, ezkontideen ezaugarri soziodemografiko nagusiei buruz eta prozesu judizialari lotutako interes sozialeko beste aldagai batzuei buruz.

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, ezkontza desagite mota, ezkontzaren iraupena, seme-alaben kopurua, adostasunik dagoen ala ez demandan.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200298

Izena: Hiri-errentamenduen gaineko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 031101 Estatistika judizialak

Azalpena:

Estatistika honek datuak biltzen ditu hiri-errentamenduen auziei buruz. Zehazten da zenbat dekretuk eta epaik ebazten dituzten prozesu hauek, eta sailkatzen dira demandaren arrazoiaren arabera, epaiaren erabakiaren arabera eta errentamenduaren xedeko higiezinaren arabera (ohiko etxebizitza edo beste erabilera batekoa den). 2021etik aurrera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusitik dator informazioa. Lehenago EINTik.

Helburuak:

Informazioa ematea hiri-errentamenduen arloko auziei buruz, zehazki, etxebizitzak ukitzen dituztenak bereiziz.

Aldagai nagusiak:

Errentamendu mota, auziaren arrazoa, erabakia

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200322

Izena: I+Gko aurrekontu-kredituei buruzko estatistika (GBARD)

Gaia: 06 Zientzia, teknologia eta gizarte digitala

Azpigai: 060102 I+Gko aurrekontu publikoak

Azalpena:

Estatistikak jasotzen du aurrekontuko zer gastu erabiltzen den I+Gko gastuko politiketarako, izan hasierako aurreikuspenetan, izan gastua egiten duen erakundearen arabera eta helburu sozioekonomikoen arabera sailkatutako betearazpenetan. Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik dator informazioa, eta Nastatek lagundu du informazioaren tratamenduan.

Helburuak:

Neurtzea zenbateko gastuak egiten diren administrazio publikoek finantzatutako I+Gko jardueretan

Aldagai nagusiak:

I+Gko gastua, hasierako kreditua, aurrekontuaren betearazpena; % guztizko gastuaren gainean

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200371

Izena: Eraikuntzaren egoeraren gaineko inkesta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040202 Eraikuntzaren estatistika koiunturalak

Azalpena:

Inbertsio eskariaren gaineko inkesta (Eraikuntza) modulu osagarria da, informazio kualitatiboa daukana, zeina igortzen baitzaie jarduera nagusia eraikuntza duten enpresei inbertsio eskariaren gaineko inkestaren galdetegian, helburua izanik jasotzea zer iritzi dagoen epe laburreko joerei buruz enpresaburuek zuzenean ezagutzen dituzten alderdi batzuen aldaketei eta aldagaiei dagokienez.

Helburuak:

Inbertsio eskariaren gaineko inkestan eskatutako informazio kualitatiboa abiapuntu hartuta, aztertzen da nolako eboluzioa duten eraikuntzaren jarduerari dagokion negozio-zifrak eta enpleguak, obren xedearen arabera: etxebizitzetarako eraikinak, etxebizitzetarako ez diren eraikinak eta/edo obra zibila.

Aldagai nagusiak:

Negozio-zifra, enplegua, obren xedea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200372

Izena: Txikizkako merkataritzaren indizeak

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigai: 040301 Merkataritza

Azalpena:

Txikizkako merkataritzaren indizeak (TMI-ICM) adierazle kointurala da, informazioa ematen duena txikizkako merkataritzako enpresen funtsezko ezaugarriari buruz, neurtzeko zer eboluzio duen hilero sektorearen jarduerak epe laburrean, bi aldagairen bidez: negozio bolumena eta okupazioa. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Eragiketa hau honen barnean dago: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko uztailaren 6ko 1158/2005 Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita Europar Batasuneko Kontseiluaren 1998ko maiatzaren 19ko 1165/98 Erregelamendua, estatistika koiunturalei buruzkoa.

Estatistika honek datuen bilketa zuzena du. Emaizak indizeen modura aurkezten dira, aldaketak neurtzeko 2015eko oinarri-urtea erreferentziazat hartuta.

Helburuak:

Argitaratzen diren indizeen eboluzioa aztertzea, 2015eko oinarri-urtea erreferentziazat hartuta.

Aldagai nagusiak:

Negozio zifra, enplegua

Lurralde

desagregazioa

zabalkunde:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200376

Izena: Mugetako mugimendu turistikoen gaineko estatistika (FRONTUR)

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040401 Turismoaren gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Mugetako mugimendu turistikoen eta gastu turistikoen gaineko estatistika inkesta jarraitua da, helburu duena hileko eta urteko estimazioak ematea Espainiako egoiliarak izan ez eta gurera iristen diren bisitarien kopuruari buruz (turistak eta txangozaleak) eta egiten dituzten bidaien ezaugarri nagusiei buruz (sarbidea, helmuga, bizilekuaren herrialdea, arrazoia, antolaketa mota, gastua...). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Kalkulatzeko bertan bizi ez diren zenbat bisitari sartzen diren Nafarroara sarbide desberdinetatik eta jokabide turistikora hurbiltzea

Aldagai nagusiak:

Bisitariak (turistak, txangozaleak), sarbidea, ostatu mota nagusia, bizitokiaren herrialdea, bidaiaren arrazoi nagusia, bidaia antolatze modua, egonaldiaren iraupena,

Bisitariak (turistak eta txangozaleak), bertan bizi ez direnak, Espainiatik ateratzen direnak sarbide/irteerako lau moduetatik edozein erabiliz (errepidea, aireportua, portua eta trenbidea)

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200377

Izena: Egoiliarren turismoari buruzko inkesta (ETI-ETR/FAMILITUR)

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigai: 040401 Turismoaren gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Egoiliarren turismoari buruzko inkesta inkesta jarraitua da, hileko, hiru hileko eta urteko estimazioak ematen dituena Espainian bizi direnen bidaiari buruz eta haien ezaugarri nagusiei buruz (helmuga, iraupena, arrazoa, ostata, garraiobidea, gastua) eta bidaiarien ezaugarri soziodemografikoei buruz, besteak beste.

Urtero, aukera ematen du jakiteko nola bidaiatzen duten 15 urteko edo hortik gorako herritarrek eta aztertzeke zer alegatu duten bidaiatzen ez duten herritarrek.

Aukera ematen du, halaber, 15 urteko edo hortik gorako egoiliarrek egindako txangoak kalkulatzeko. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Informazioa ematen du Espainian bizi diren herritarrek egiten dituzten bidaiari buruz eta haien ezaugarriari buruz.

Aldagai nagusiak:

Bidaiak, ostatu-gauak, batez besteko iraupena, gastua, helmuga nagusia, ostatu nagusia, bidaiatzeko arrazoi nagusia, bidaiaren iraupena, garraiobide nagusia, bidaiari antolatzeke modua; gastu kontzeptuak; sexua, adina, nazionalitatea, lortutako prestakuntza maila eta bidaiarien jarduerarekiko lotura.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200378

Izena: Gastu turistikoari buruzko inkesta (EGATUR)

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040401 Turismoaren gaineko estatistika koiunturalak

Azalpena:

Mugetako mugimendu turistikoen eta gastu turistikoaren gaineko estatistika inkesta jarraitua da, helburu duena hileko eta urteko estimazioak ematea Espainian bizi ez eta Nafarroara iristen diren bisitarien kopuruari buruz (turistak eta txangozaleak) bai eta egiten dituzten bidaien ezaugarri nagusiei buruz ere (sarbidea, helmuga, bizilekuaren herrialdea, arrazioa, antolaketa mota, gastua...). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Kalkulatzeko zenbateko gastu turistikoa egiten duten Espainian bizi ez diren bisitarien eta zein den haien jokabidea

Aldagai nagusiak:

Nazioarteko turisten guztizko gastua, sarbidea, ostatu mota nagusia, bizitokiaren herrialdea, bidaiaren arrazoi nagusia, bidaia antolatzeko moduaren arabera eta gastu partiden arabera. Era berean kalkulatu ahal da batez besteko gastua turista bakoitzeko eta egun bakoitzeko.

Bidaien batez besteko iraupena, ostatu-gauak, gau kopurua.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200383

Izena: Familien gastuaren gaineko inkesta

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030201 Etxeen gastuak eta kontsumoa

Azalpena:

Gastuaren gaineko inkestak ematen digun adierazleari esker, zeinari Nafarroako etheen gastuaren indizea deituko baitiogu, kalkulatzeko ahal da etheen hiruhilekoko gastua, koherentzia izanik familien aurrekontuei buruzko inkestak emandako urteko gastuaren datuekin. Lortutako kalkuluak, koherentzia eta kalitate egokia duenak, bide ematen du jarraipen eta kontrol hobea egiteko epe laburrean Nafarroako etheen gastuari.

Helburuak:

Hiru hileko adierazle bat egitea etheen gastuari buruz.

Etxeen gastuaren eboluzioa eta egitura aztertzea.

Aldagai nagusiak:

Etxeen gastua, ondasunen eta zerbitzuen arabera sailkatua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200402

Izena: Nafarroako biztanleen errentari buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030202 Etxeen diru-sarrerak eta errenta

Azalpena:

Errentarekin lotutako adierazleak urtero prestatzea zehaztasunez eta lurraldearen arabera desagregatuz, eragile ekonomikoek eta sozialek erabil ditzaten, genero ikuspegiaren, nazionalitatearen, jaioterriaren eta adinaren arabera.

Helburuak:

Adierazleak lortzea, lotura dutenak jendearen eta etxeen batez besteko errenta garbiarekin herritarren egoera ekonomikoa aztertzeko; halaber, pobrezia arriskuaren tasak zehazten ahal dira, baita Gini indizea eta S80/S20 banaketa ere, errenten kontzentrazioaren berri ematen dutenak. Horretaz gain, errenten jatorria bereiz daiteke (soldata, pentsioak, prestazioak...), haien eboluzioa aztertuz jendearen ezaugarrien arabera (sexua, nazionalitatea, jaioterria eta adina).

Aldagai nagusiak:

Sexua, adina, nazionalitatea, jaiotzako herrialdea, desgaitasun egoera, etxearen diru-sarrera garbiak, diru-sarrera garbiak kontsumo unitateko eta pertsonako, pobrezia arriskua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200403

Izena: Nafarroako Turismoaren kontu sateliteak

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigai: 010104 Kontu sateliteak

Azalpena:

Kontuen eta taulen multzoa, kontabilitate nazionalaren printzipio metodologikoetan oinarritua, turismoaren parametro ekonomikoak aurkezten dituena elkarrekin lotuz, erreferentziako egun jakin baterako. Kontu eta taula horiek aldagai desberdinei buruzkoak dira (hala eskaintza turistikokoak nola eskarikoak). Aukera ematen du adierazle batzuk lortzeko, hala nola sektore turistikokoak BPGan duen pisua, edo gastua zenbatzeko turismo igorleari eta hartzaileari dagokienez.

Helburuak:

Nafarroako jarduera turistikokoaren irudikapen sistematikoa, konparagarria eta osoa lortzea, ahal dela egokitzen dena Turismoaren Mundu Erakundeak turismoaren kontu satelitea prestatzeko egin duen eskuliburuan jasotzen diren kontzeptu, definizio eta sailkapenetara, Nafarroako turismoaren plan estrategikoko helburuak garatzeko

Aldagai nagusiak:

Turismoaren ekarpena Nafarroako BPGra; enplegu turistikoa; kontsumo turistikoa; gastu turistikoa hartzailea; barneko gastu turistikoa; gastu turistikoa igorlea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200417

Izena: Nafarroako Estatistika Ekonomikoen Sistema Integratua (NEESI-SIENA)

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010105 Kontuen sistemaren beste osagai batzuk

Azalpena:

Nastatek banakako erregistroen datu-base ekonomiko bat prestatu du, eskura dagoen informazio ekonomiko guztia lotuz Nafarroako enpresen direktorioa osatzen duten enpresei.

Informazio hori egiturazko inkestetatik eta inkesta koiunturaletatik dator, Gizarte Segurantzako afiliatiziotik eta Nafarroako Zerga Ogasunaren erregistro fiskaletatik.

Informazio guztiarekin balidatze prozesuak egiten dira, informazio iturria hautatu eta eskura ez dagoen informazioa egotzi; horrela, datu-base bat eratzen da, non Nafarroako enpresa guztiek eskura baitute aldagai ekonomiko nagusiei buruzko informazio ekonomikoa: Produktzioa, balio erantsi gordina, langileria-gastuak, landunak, etab.

Helburuak:

Datu-base bat diseinatzea, eskura dagoen informazio ekonomikoa eransten diena Enpresen direktorioa osatzen duten erregistro guztiei; horrek bide ematen du Nafarroako Kontu Ekonomikoen zenbatespena eta informazio ekonomikoaren sistema hobetzeko.

Aldagai nagusiak:

Produktzioa, tarteko kontsumoak, BEGa, landunak, soldatapeko langileak, soldatak, soldatapekoen ordainsaria eta inbertsioa

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200418

Izena: Nafarroako input-output esparrurako inkesta

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010101 Input-output esparrua

Azalpena:

Input-output esparrurako inkesta berariazko inkesta bat da, input-output taula egiten den urterako prestatzen dena eta bide ematen duena Nafarroako enpresek beren jarduerarako eginiko tarteko kontsumoen egitura ezartzeko, jatorriak eta helburuak zehaztuta.

Helburuak:

Informazioa lortzea lehengeiei buruz eta Espainiako enpresek produkzio prozesuetan erabiltzen dituzten beste sargai batzuei buruz, produktuen arabera eta jarduera arloaren arabera desagregatuta.

Aldagai nagusiak:

Lehengaien kontsumoak, beste hornidura batzuen kontsumoa, kanpoko zerbitzuak (aldagai guztiak jatorri geografikoaren arabera desagregatuta), bukatutako produktuen salmentak (helmuga geografikoaren arabera desagregatuta), enplegua.

Jarduera arloa, produktua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200421

Izena: Genero berdintasunaren indizea

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 031201 Berdintasuna

Azalpena:

Genero berdintasunaren indizea neurri sintetikoa da, heltzen diena emakumeek eta gizonek bizitzaren esparruetan dituzten desberdintasunei, osasunaren esparrutik hasi, eta boterean, esparru ekonomikoan, lan arlokoan etab. GBEI institutuak (Genero Berdintasunerako Europako Institutua) proposatu du adierazlearen konfigurazioa. Institutu horrek prestatzen du informazio bera EBko herrialdeetarako. Nafarroarako, adierazle batzuk egokitu behar dira, informazio iturri guztiak ez baitaude eskura biztanleriaren eremu horretarako.

Helburuak:

Deskribatzea noraino egin duen aurrera Nafarroako gizarteak genero berdintasunaren arloan, eta, alderantziz, zenbateko bidea falta zaion emakumeen eta gizonen berdintasun osoa lortzeko.

Nafarroak genero berdintasunaren arloan duen egoera konparatzea erkidego honetarako, daukaten garapen ekonomikoa eta soziala dela eta, baliozko eredia osatzen duten gizarteekin, edo, arlo horretan lortutakoagatik, gainerakoentzat eredu diren beste horiekin.

Nafarroan genero berdintasunaren arloan ematen ari diren aurrerapausoak aztertzea, politikak ebaluatzeko eta jarduera berriak diseinatzeko genero berdintasuna lortzeko.

Aldagai nagusiak:

Sexua, enplegua, egoera ekonomikoa, bizi itzaropena,

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200423

Izena: Garapen jasangarriaren adierazleak

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 031501. Garapen jasangarria

Azalpena:

Garapen jasangarrirako 2030 Agendak 17 helburu eta 169 jomuga ditu. Haien jarraipena egiteko, datu estatistikoetatik kalkulaturako adierazleak eduki behar dira eskura. Eragiketa estatistiko bat eratzten duten adierazle horiek etengabe eguneratzen dira, erakunde askotatik datorren informazioarekin (batez ere EIntik), bermatzeko lurraldeen arteko konparazioak egin daitezkeela, baita gutxika eransten joanen diren beste iturri ofizial batzuetatik ere.

Helburuak:

Sintesiko eragiketa honen helburua da adierazle estatistikoaren esparru bat eratzea, segimendua egiteko Nafarroako Foru Komunitatean Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendako helburuei eta jomugei, bat etorritik kasu kasuko eragiketa estatistikoari dagokion metodologiarekin eta kalitate irizpideekin.

Hautaturako datuen seriek oinarri dituzte Nazio Batuek ezarritako mundu mailako adierazleak.

Prozesuak eboluzionatuko dira denborarekin, kontuan hartuta sortzen ari diren gaiak eta adierazleen garapen metodologikoa.

Aldagai nagusiak:

Sexua.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200424

Izena: Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta

Gaia: 05 Ingurumena, nekazaritza eta energia

Azpigaia: 050101 Nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak

Azalpena:

Nekazaritzako ustiategiak aztertzen dira, baldintza hauetakoren bat betetzen badute: gutxienez nekazaritzarako erabilitako azalera hektarea batekoa izatea; gutxienez 0,2 hektarea izatea barazki eta loreetarako, negutegiko laboreetarako, ureztalurreko fruta-arboletarako edo mintegietarako; gutxienez 0,1 hektarea izatea berotegiko barazkietarako edo berotegiko lore eta landare apaingarrietarako; gutxienez 0,5 hektarea izatea tabako, lupulu edo kotoirako; abeltzaintzakoak badira, nolabaiteko garrantzi ekonomikoa izan behar dute. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Helburu nagusiak dira:

-Espainiako nekazaritzaren egoera aztertzea eta jarraipena egitea nekazaritzako ustiategien egiturazko eboluzioari, eta Europar Batasuneko estatu guztien artean konparatzen ahal diren emaitzak lortzea.

-Europar Batasunak Kontseiluaren erregelamenduetan ezarritako araudia betetzea eta nekazaritzaren sektoreari buruzko errekerimendu estatistiko nazionaleri erantzutea, baita informazio estatistikoaren nazioarteko eskaerei ere.

Aldagai nagusiak:

Ustiategiak, nekazaritzako azalera, abeltzaintza, ustiategiko lana, lurraren aprobetxamendua, makineriak, ureztapena, lurraren edukitze araubidea eta laboreak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200426

Izena: Enpresen egiturei buruzko estatistika: Industria sektorea

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040101 Industria sektorearen gaineko egiturazko estatistikak

Azalpena:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen gainean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen gainean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Lortutako informazioak oinarritzko baldintza batzuk bete behar ditu: konparatzeko modukoa izatea nazioartean eta estatistika hauen erabiltzaileek dituzten informazio beharrak asetzea. Horretaz gain, bide eman behar du azterketaren xedeko sektoreetan izandako eraldaketak ikertzeko. Honako hauek dira estatistika honen beste erabilera batzuk:

-Nazioarteko erakundeek (bereziki, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa, EUROSTAT) dituzten informazio eskariei erantzutea eta hauetan xedatutakoa betetzea: Europako SBS erregelamendua (Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Parlamentuaren 295/2008 Erregelamendua, enpresen egiturazko estatistikei buruzkoa, zehazki I., II. eta III. eranskinak) eta FATS erregelamendua (716/2007 Erregelamendua, filialen egiturari eta jarduerari buruzkoa, zehazki INWARD eranskina). Metodologia erregelamendu horietara egokituta, konparazioak egin daitezke Europar Batasuneko gainerako estatuekin, informazio bera zabaltzen badute kasuan kasuko eremu eta sektoreetarako.

-Oinarritzko informazioa ematea kontabilitate nazionalerako.

-Esparrua izatea adierazle koiunturalak egokitzeko.

-Autonomia erkidegoen behar estatistikoei erantzutea.

-Nazioko eta nazioarteko gainerako erabiltzaileei erantzutea (instituzioak, enpresak eta elkarreak, ikertzaileak, unibertsitateak eta, oro har, azterketaren xedeko sektore ekonomikoen egiturazko azterketan interesa duen edonor).

Aldagai nagusiak:

Jarduera ekonomikoa; enpresa; establezimendua; inbertsioa; langile landunak; langileria gastuak; soldadak eta lansariak; gastuak kanpoko zerbitzuetan; negozio-zifra; produkzioa oinarritzko prezioetan; ustiatzearen soberakin gordina (USGa), BEGa, izakinen aldakuntza

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200427

Izena: Enpresen egiturazko estatistika: Zerbitzuen sektorea

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040801 Zerbitzuen sektorearen gaineko egiturazko estatistikak

Azalpena:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen gainean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen gainean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Lortutako informazioak oinarritzko baldintza batzuk bete behar ditu: konparatzeko modukoa izatea nazioartean eta estatistika hauen erabiltzaileek dituzten informazio beharrak asetzea. Horretaz gain, bide eman behar du azterketaren xedeko sektoreetan izandako eraldaketak ikertzeko. Honako hauek dira estatistika hauen beste erabilera batzuk:

-Nazioarteko erakundeek (bereziki, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa, EUROSTAT) dituzten informazio eskariei erantzutea eta hauetan xedatutakoa betetzea: Europako SBS erregelamendua (Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Parlamentuaren 295/2008 Erregelamendua, enpresen egiturazko estatistikei buruzkoa, zehazki I., II. eta III. eranskinak) eta FATS erregelamendua (716/2007 Erregelamendua, filialen egiturari eta jarduerari buruzkoa, zehazki INWARD eranskina). Metodologia erregelamendu horietara egokituta, konparazioak egin daitezke Europar Batasuneko gainerako estatuekin, informazio bera zabaltzen badute kasuan kasuko eremu eta sektoreetarako.

-Oinarritzko informazioa ematea kontabilitate nazionalerako.

-Esparrua izatea adierazle koiunturalak egokitzeko.

-Autonomia erkidegoen behar estatistikoei erantzutea.

-Nazioko eta nazioarteko gainerako erabiltzaileei erantzutea (instituzioak, enpresak eta elkarteak, ikertzaileak, unibertsitateak eta, oro har, azterketaren xedeko sektore ekonomikoen egiturazko azterketan interesa duen edonor).

Aldagai nagusiak:

Jarduera ekonomikoa; enpresa; establezimendua; inbertsioa; langile landunak; langileria gastuak; soldadak eta lansariak; gastuak kanpoko zerbitzuetan; negozio-zifra; produkzioa oinarritzko prezioetan; ustiatzearen soberakin gordina (USG), BEGa, izakinen aldakuntza

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200428

Izena: Enpresen egiturazko estatistika: Merkataritza sektorea

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaia: 040301 Merkataritza

Azalpena:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen ganean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen egiturazko estatistikak prestatzen ditu urtero industria, merkataritza eta finantzaz kanpoko sektoreetarako; helburua da informazioa ematea azterketaren xedeko sektoreetako enpresen ezaugarri egiturazko eta ekonomiko nagusiei buruz, aldagai ugariaren bidez honen ganean: langile landunak, negozio-zifra eta beste diru-sarrera batzuk, erosketak eta kontsumoak, langileria-gastuak, zergak eta inbertsioak. Lortutako informazioak oinarritzko baldintza batzuk bete behar ditu: konparatzeko modukoa izatea nazioartean eta estatistika hauen erabiltzaileek dituzten informazio beharrak asetzea. Horretaz gain, bide eman behar du azterketaren xedeko sektoreetan izandako eraldaketak ikertzeko. Honako hauek dira estatistika hauen beste erabilera batzuk:

-Nazioarteko erakundeek (bereziki, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa, EUROSTAT) dituzten informazio eskariei erantzutea eta hauetan xedatutakoa betetzea: Europako SBS erregelamendua (Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Parlamentuaren 295/2008 Erregelamendua, enpresen egiturazko estatistikei buruzkoa, zehazki I., II. eta III. eranskinak) eta FATS erregelamendua (716/2007 Erregelamendua, filialen egiturari eta jarduerari buruzkoa, zehazki INWARD eranskina). Metodologia erregelamendu horietara egokituta, konparazioak egin daitezke Europar Batasuneko gainerako estatuekin, informazio bera zabaltzen badute kasuan kasuko eremu eta sektoreetarako.

-Oinarritzko informazioa ematea kontabilitate nazionalerako.

-Esparrua izatea adierazle koiunturalak egokitzeko.

-Autonomia erkidegoen behar estatistikoei erantzutea.

-Nazioko eta nazioarteko gainerako erabiltzaileei erantzutea (instituzioak, enpresak eta elkarreak, ikertzaileak, unibertsitateak eta, oro har, azterketaren xedeko sektore ekonomikoen egiturazko azterketan interesa duen edonor).

Aldagai nagusiak:

Jarduera ekonomikoa; enpresa; establezimendua; inbertsioa; langile landunak; langileria gastuak; soldadak eta lansariak; gastuak kanpoko zerbitzuetan; negozio-zifra; produkzioa oinarritzko prezioetan; ustiatzearen soberakin gordina (USGa), BEGa, izakinen aldakuntza

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200429

Izena: Enpresen direktorio nagusia

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigai: 010301 Jarduera ekonomikoaren unitateen direktorioa

Azalpena:

Enpresen direktorio nagusia EInk helburu estatistikoetarako prestatutako produktu bat da, laginen esparru gisa balio izateko enpresei zuzendutako estatistika ofizialetarako. Aukera ematen du enpresen eta haien lokalen kopurua eta ezaugarriak ezagutzeko, hala nola tamaina, jarduera nagusia eta forma juridikoa. EUROSTATen gomendioak betez prestatzen da metodologiaren aldetik. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator, Nastatekin lankidetzan.

Helburuak:

Kuantifikazio sistematikoa eta zehatza ematea jardunean dauden jarduera ekonomikoko unitateei buruz

Aldagai nagusiak:

Forma juridikoa, soldatapekoen estratua, jarduera ekonomiko nagusia,

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200430

Izena: Bidaiarien garraioari buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030103 Mugikortasuna

Azalpena:

Bidaiarien garraioari buruzko estatistikak sortutako informazioa aprobetxatzea barne erabileratarako (Nafarroako biztanleriaren mugikortasunaren gaineko estatistika, NBSI-SIPNa). Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Input-a izatea Nafarroako biztanleriaren mugikortasunaren gaineko estatistikarako (NBSI-SIPNa)

Aldagai nagusiak:

Bidaiarien kopurua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200435

Izena: Laneko kaleratzeei eta haien kostuari buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030503 Lan merkatuari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Langileen kaleratze kostuei lotutako informazioa lortu gogo da; horretarako, erregistro administratiboak baino ez dira erabiltzen. Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioarekin lankidetzan prestatzen da.

Helburuak:

Kaleratzeak eta haien kostua aztertzea; kostutzat jotzen da kalte-ordain gisa emandako zenbatekoa, jasota dagoena Zerga Administrazioako Estatu Agentzian eta EAeko eta Nafarroako foru ogasunetan dauden erregistroetan, baita Soldatak Bermatzeko Funtsak eginiko ordainketak ere, erreferentziako urteari dagozkionak.

Aldagai nagusiak:

Sexua; adina; nazionalitatea; lan-kontratu mota; lanaldi mota; azken alta aldiaren iraupena; kotizazio kontuaren jarduera ekonomikoa

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200436

Izena: Etxebizitza parkeari buruzko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030701 Etxebizitza eta eraikinak

Azalpena:

Etxebizitza parkeari buruzko estatistikak jasotzen du zenbat etxebizitza zenbatzen diren udalerrri bakoitzean, bereizita, alde batetik etxebizitza nagusiak, hau da, urte osoan era iraunkorren okupatuta daudenak, eta, bestetik, bigarren etxebizitza gisa erabiltzen direnak edo hutsik daudenak.

Helburuak:

Nafarroan dauden etxebizitzaren kopurua ematea, erabilera nagusia edo ez-nagusia bereiziz. Etxebizitza nagusiak dira ohiko bizileku gisa erabiltzen direnak eta bertan bizi den pertsona batek edo gehiagok modu iraunkorren okupatzen dituztenak; etxebizitza ez-nagusiak, berriz, dira ohiko bizileku gisa erabili arren, aldi baterako edo modu iraunkorren hutsik daudenak, dela erabiltzen ez direlako, dela urtaroaren arabera erabiltzen direlako (oporretan, asteburuetan, etab.).

Aldagai nagusiak:

Etxebizitza nagusia, etxebizitza ez-nagusia, udalerrria

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200446

Izena: Biztanleria aktiboaren gaineko udal estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030501 Okupazioaren eta langabeziaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Erregistro administratiboak erabiltzeak aukera ematen du gero eta informazio zehatzagoa edukitzeko jardueraren arloan; eragile ekonomikoek eta sozialek maiz eskatzen dute eta gero eta interes handiagoa dago haren berri izateko udalerrri mailan.

Helburuak:

Langabezia, jarduera eta enplegu tasak ematea urteko maiztasunarekin, sexuaren arabera desagregatuak udalerrri mailan.

Aldagai nagusiak:

Langabeak; landunak; aktiboak; inaktiboak; sexua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerririk

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200500

Izena: Biztanleria aktiboaren estatistika. Nafarroa 2000 Zonifikazioa

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030501 Okupazioaren eta langabeziaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Erregistro administratiboak erabiltzeak aukera ematen du gero eta informazio zehatzagoa eskaintzeko jardueraren arloan; eragile ekonomikoek eta sozialek maiz eskatzen dute eta gero eta interes handiagoa dago haren berri izateko, lurraldearen desagregazio maila handitu ahala.

Helburuak:

Langabezia, jarduera eta enplegu tasak ematea hiru hileko maiztasunarekin, sexuaren arabera desagregatuak Nafarroa 2000 Zonifikazioaren mailan.

Aldagai nagusiak:

Langabeak; landunak; aktiboak; inaktiboak; sexua

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200447

Izena: Gizarte Segurantzako afiliazioaren gaineko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030501 Okupazioaren eta langabeziaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Estatistika honek jasotzen du zenbat pertsona dauden afiliatuta Gizarte Segurantzaren hiru hileko bakoitzaren azken egunean. Datuak honen arabera banakatzen dira: sexua, nazionalitatea, jardueraren sektorea, afiliazio araubidea, kontratu mota, bizilekua, lanlekua eta enpresaren tamaina, batez ere. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorretik dator informazioa.

Helburuak:

Datuak zabaltzea Gizarte Segurantzako sistemara afiliatutako herritarrei buruz, erantzun ahal izateko informazio horretan interesa duten entitate, erakunde eta pertsona ugariren beharrei

Aldagai nagusiak:

Sexua, adina, nazionalitatea, bizilekua, araubidea, kontratu mota, enpresaren tamaina, jardueraren sektorea, lanlekua

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200442

Izena: Biztanleriak jarduerarekin duen loturaren gaineko estatistika (NBSI-SIPNa)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030501 Okupazioaren eta langabeziaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Deskribatzen da nolako lotura duten jarduerarekin Nafarroan bizi diren 15 urteko gorako herritarrek, udalerrri mailan, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. Jendea aktiboa (landuna edo langabea) edo inaktiboa den zehazteaz gain, xeheago aztertzen da jarduerarekiko lotura bakoitza, eta zehazten da, kasua bada, inaktibitatearen arrazoia eta landunen egoera profesionala eta jardueraren sektorea. Inaktibitate egoeretarako, zehaztuko da, halaber, pertsona pentsioduna den, eta haren modalitatea.

Helburuak:

Zehaztea zein diren 15 urtetik gorako biztanleen ezaugarri nagusiak egiten duten lan jarduerari dagokionez. Jarduerarekiko lotura horren inguruabar zehatzak aztertzea herritarren bizilekuaren udalerrriaren, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.

Aldagai nagusiak:

Bizilekuaren udalerrria, sexua, adina, nazionalitatea, jarduerarekiko lotura, egoera profesionala, jardueraren sektorea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200444

Izena: Biztanleriaren soldaten egituraren gaineko estatistika (NBSI-SIPNa)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030502 Soldaten gaineko inkestak

Azalpena:

Soldaten egitura aztertzen da Nafarroan bizi diren landunen soldata gordinaren bidez, ezaugarri desberdinen arabera: bizilekuaren udalerrria, sexua, nazionalitatea, adina eta jardueraren sektorea; horrela, EINK urtero ematen duen soldaten egituraren gaineko inkesta osatzen da.

Helburuak:

Soldaten banaketa aztertzea aldagai hauen arabera: jarduera arloak, sexua, adina, nazionalitatea, jaioterria eta bizilekua

Aldagai nagusiak:

Urteko soldata gordina, sexua, adina, nazionalitatea, jaioterria, bizilekuaren udalerrria, jardueraren sektorea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerririk

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea:

Izena: COVID-19aren eragina ekonomian

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010302 Beste informazio batzuk enpresei buruz

Azalpena:

Datuak hiru hilean behin jasotzea, jarraipena egiteko COVID-19ak eragindako osasun krisiak Nafarroako ekonomian izan duen inpaktuari.

Helburuak:

Tresna bakarra izatea enpresen informazio beharrei erantzuteko, erabaki egokiak har ditzaten krisi ekonomikoa gainditzeko.

Aldagai nagusiak:

COVID-19aren inpaktu ekonomikoa, jardueraren sektorea, lan merkatua, espektatibak, sektore publikoa

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200081

Izena: Kontsumoko Prezioen Indizea

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaiak: 010401 Kontsumoko Prezioen Indizea

Azalpena:

Kontsumoko prezioen indizeak (KPI) helburu du neurri estatistiko bat ematea Nafarroan etxebizitza familiarretan bizi diren herritarrek kontsumitzen dituzten ondasun eta zerbitzuen prezio guztien eboluzioaz.

KPIaren kontsumo esparruaren barnean, honako hauek ez daude sartuta: autokontsumoaren, autohorniduraren, gauzako soldataren, doako bazkarien edo sari gisa emandakoen kontzeptuan gauzatan jasotako ondasunak edo etxebizitzeari egotzitako alokairuak, etxebizitzaren jabeen kasuan.

Laginaren tamaina 479 kontsumoko ondasun eta zerbitzu da; horretarako, 220.000 prezio biltzen dira gutxi gorabehera Espainia osoko 33.000 establezimendutan. Eta 250 kontsumoko ondasun, zeinen prezioak lortzen baitira scanner data erabiliz. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Emaitzak indizeen modura aurkezten dira, aldaketak neurtzeko 2016ko oinarri-urtearen aldean.

Aldagai nagusiak:

Kontsumoko prezioen indize orokorra eta ECOICOP taldeena; talde berezien indizeak; etxebizitzaren alokairuko azpitaldearen indizeak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200441

Izena: Biztanleriaren prestakuntza mailaren gaineko estatistika (NBSI-SIPNa)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030404 Hezkuntza mailaren gaineko estatistikak

Azalpena:

Erregistro administratiboak erabiltzeak aukera ematen du gero eta informazio zehatzagoa edukitzeko hezkuntza mailaren arloan; eragile ekonomikoek eta sozialek maiz eskatzen dute eta gero eta interes handiagoa dago haren berri izateko udalerrri mailan.

Helburuak:

Pertsonen portzentajea ematea lortu duten ikasketa mailarik handienaren arabera, urteko maiztasunarekin, udalerrri mailan intereseko zenbait aldagairen arabera desagregatuta.

Aldagai nagusiak:

Sexua, adina, nazionalitatea eta jaioterria.

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerririk

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200443

Izena: Biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistika (NBSI-SIPNa)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030902 Hizkuntzen ezagutza eta hizkuntza politika

Azalpena:

Nafarroako herritarren euskaren hizkuntza-eskakizunari buruzko estatistika, udalerrien arabera. Zehazten du zein den euskararen jakite-maila, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua erreferentziatzat hartuta, eta zein den lehen hizkuntza haurtzaroan eta etxean gehien mintzatzen den hizkuntza. Oinarritzat hartzen da, halaber, Nafarroako mapa soziolinguistikoa prestatzeko.

Helburuak:

1. Mapa bat zehaztea udalerrien arabera euskarazko hizkuntza gaitasunei buruz, haren erabilerari buruz eta haurtzaroko lehen hizkuntzari buruz
2. Nafarroako Euskararen Plan Estrategikoko adierazleei heltzea

Aldagai nagusiak:

Euskararen jakite-maila, etxean mintzatutako hizkuntzak, haurtzaroko lehen hizkuntza, sexua, adina, bizilekuaren udalerrria, jaioterria

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerriak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200445

Izena: Nafarroako biztanleriaren mugikortasunaren gaineko estatistika (NBSI-SIPNa)

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030103 Mugikortasuna

Azalpena:

Estatistika honek deskribatzen du nolako mugikortasuna duen egunero Nafarroako biztanleriak bere jardueraren arabera. Lantoki eta ikastokietako joan-etorriek biltzen dute, hein handi batean, eguneko mugikortasunaren gaineko interesa, biztanleriaren zati handi bat ukitzen duelako. Kontsumoak, aisialdiak eta ekimen pertsonalek eragindakoak dira beste mugimendu garrantzitsu batzuk. Informazioak aukera ematen du jardueraren arabera mugimenduak identifikatzeko eta aldagai soziodemografikoen arabera sailkatzeko.

Helburuak:

Biztanleriaren eguneroko mugikortasuna deskribatzea honako honen arabera: erabilitako garraiobidea, mugitzeko arazoia, abiapuntua eta helmuga eta jendearen ezaugarri soziodemografikoak.

Aldagai nagusiak:

Joan-etorrien kopurua, abiapuntua-helmuga, garraiobidea, sexua, adina, jarduerarekiko lotura

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Udalerririk

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200501

Izena: Etxebizitzaren alokairuaren prezioen gaineko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaia: 030701 Etxebizitza eta eraikinak

Azalpena:

Estatistika honek jasotzen du zenbateko gastua duten etxeek errentako etxeak pagatzeko. Errentako etxe guztietarako ematen da informazioa, honako hau zehaztuta: kontratuaren hasiera urtea, errentariaren ezaugarriak, hala nola adina, nazionalitatea eta jaioterria eta etxebizitzaren erabilera (nagusia, bigarren mailakoa edo bestelakoa). Lurraldearen arabera desagregazioa egin daiteke, zein den etxebizitzaren kokalekua.

Helburuak:

Informazioa ematen du etxeek errentako etxebizitzaren arloan beren gain hartzen duten gastuari buruz eta informazioa sortzen du errentako etxebizitzaren prezioen indize bat prestatzeko, prezioen eboluzioa aztertu ahal izateko, urteko maiztasunarekin.

Aldagai nagusiak:

Etxebizitzaren ezaugarriak: prezioa, lurraldea, azalera, erabilera; errentariaren ezaugarriak: adina, sexua, nazionalitatea, jaioterria

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200449

Izena: Zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren gaineko estatistika

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040701 Gainerako zerbitzuak

Azalpena:

Zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren gaineko estatistika lagin bidezko hiru hileroko inkesta da, Espainian egoiliar diren enpresei eta beste entitate batzuei buruzkoa, helburu duena kalkulatzeko zenbateko balioa duten Espainiako ekonomiaren turismoaz kanpoko zerbitzuen esportazioek eta inportazioek, Espainiako Bankuak ordainketa balantzako "Beste zerbitzu batzuk" atalean sar dezan, eta EINK berak Espainiako ekonomiako kontu nazionaletan. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Informazio koherentea lortzea Nafarroako zerbitzuen nazioarteko merkataritzari buruz.

Aldagai nagusiak:

Zerbitzu mota; esportazioak; inportazioak; zerbitzua jasotzeko edo hornitzeko bide nagusia; jatorriko/helmugako herrialdea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200448

Izena: Jabetza eskubideen eskualdatzearen gaineko estatistika

Gaia: 01 Ekonomia eta finantzak

Azpigaia: 010601 Finantzak eta aseguruak

Azalpena:

Estatistika honek hilerro esaten du ondasun higiezinaren gaineko zenbat eskubide eskualdatu diren, eskualdaketa jasota gelditu bada jabetza erregistroetan. Eskualdatutako jabetza eskubidearen eta eskuratze tituluaren arabera sailkatzen da. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Estatistikaren helburu nagusia da koiunturako informazioa ematea, erabilgarria izan daitekeena azterketa sozioekonomikorako.

Aldagai nagusiak:

Eskuratze titulua, eskualdatzailea, eskuratzailerak, eskualdatze data, inskripzio data, eskualdatutako eskubidea, finkaren izaera, etxebizitzaren araubidea, etxebizitzaren egoera eta eraikuntzaren egoera

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200505

Izena: Biztanleriaren eta etxebizitzaren 2021eko erroldak

Gaia: 02 Biztanleria eta demografia

Azpigai: 020101 Errolda eta biztanleria datuak

Azalpena:

Biztanleriaren eta etxebizitzaren erroldek osatzen duten estatistikak tradizio handienetakoa duena da sistema estatistikoan. Aukera ematen dute honako hau ezagutzeko: biztanleriaren ezaugarriak, haien etxeak eta bizileku dituzten etxebizitzak eta eraikinak.

Biztanleriaren eta etxebizitzaren 2021eko erroldaren eragiketak oinarri du informazio administratiboa baliatzea, gero eta gutxiago bilduko baita galdetegen bidez. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator, eta Nastatek parte hartu du datuen tratamenduaren zati batean.

Helburuak:

Nafarroako biztanleria, haien etxeak eta etxebizitzak ezaugarritzea testuinguruko informazioa emateko, biztanleria oinarri duen edozein azterketatarako.

Aldagai nagusiak:

Adina, sexua, nazionalitatea, jaioterria, bizilekua, etxe mota, etxebizitza mota

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

errolda-atalak

DEPARTAMENTUA: Ekonomia eta Ogasuna

ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Nafarroako Estatistika Institutua

Kodea: 2200501

Izena: Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko estatistika

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030401 Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza

Azalpena:

Aztertzea zer ezaugarri egiturazko eta ekonomiko dituzten irakaskuntza pribatu arautuan jarduten duten ikastetxeek, izan itunduak (eskola-unitateren bat funts publikoen bidez finantzatua dutenak) nahiz ez-itunduak. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionaletik dator.

Helburuak:

Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko estatistikaren helburu nagusia da aztertzea zer ezaugarri egiturazko eta ekonomiko dituzten irakaskuntza pribatu arautuan jarduten duten ikastetxeek, izan itunduak (eskola-unitateren bat funts publikoen bidez finantzatua dutenak) nahiz ez-itunduak.

Helburu horretarako, informazioa biltzen da ikastetxearen ezaugarriei buruz irakasmila bakoitzeko: ikasleriaren eta irakasleriaren osaera eta kostuen, gastuen eta diru-sarreraren egitura.

Horretaz gain, informazioa lortzen ahal da jakiteko zenbateko gastua egiten duten etxeek irakaskuntza pribatuko ikastetxeetan, ikasleengandik kontzeptu hauetan jasotako diru-sarreraren bidez: irakaskuntza jarduerak, aparteko jarduerak, jarduera osagarriak eta zerbitzu osagarriak.

Aldagai nagusiak:

Gastuak eta diru-sarrerak; irakaskuntza mailen kostua; zerbitzu osagarriak eta laguntza zerbitzuak; ikastetxeen egitura eta jarduera, langileria eta ikasleria

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Enpresa Politikaren, Nazioarteko
Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200181

Izena: Enplegu erregulazioa

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030503 Lan merkatuari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Estatistika honek informazioa ematen du hileroko enplegu-erregulazioko espediente tramitatuen kopuruari buruz.

Helburuak:

Helburua da hileroko informazioa ematea erreferentziako hilabetean tramitatu diren enplegu-erregulazioko espedientei eta haien modalitatei buruz (kontratuak hutsaltzea/kaleratze kolektiboak, kontratuak etetea, lanaldia murriztea eta espediente mistoak), baita kasuan-kasuan ukitutako langileei buruz eta adostasunez edo adostasunik gabe bukatu den espedientea ere.

Aldagai nagusiak:

Enpresaren lantoki kopurua; enpresako langileria; EEE modalitateak; EEE zenbat egunetan egon den indarrean; EEEK ukitutakoen sexua; lanaldi murrizketaren portzentajea, akonpainamendurako neurri sozialak; hilabetea

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo
Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200439

Izena: Biztanleriaren balorazioa

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040403 Turismoari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Helburuak:

Informazioa eskuratzea jakiteko nola baloratzen eta sumatzen duen Nafarroan bizi direnek Nafarroako jarduera turistikoaren garapena, lau esparrutan: ekonomikoa, soziala, kulturala eta ingurumenekoa.

Jakitea garapen turistikoaren gaineko balorazioa aldatzen den baldintza hauen arabera: bizilekuaren eskualdea, bizilekuaren udalerraren tamaina, adina, ikasketa maila, sexua, jaioterria (Espainia edo atzerrian) edo turismoarekiko lotura ekonomikoa edo lan arlokoa.

Aztertzea iritzi horiek aldatzen diren denborarekin, jarduera turistikoa handituz gero edo beste fenomeno batzuk gertatuz gero, hala nola krisi ekonomikoak edo osasun krisiak.

Ebaluatzea nolako eragina duten biztanleriak atzeman ditzakeen ondorio negatiboak apaltzeko hartzen diren ekintzek

Aldagai nagusiak:

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

DEPARTAMENTUA: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo
Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200503

Izena: Goi-denboraldiko bisitariaren profilaren azterketa, gastu datuak bilduta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040403 Turismoari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Eragiketa estatistiko honen helburua da aldian aldiko azterketa bat egitea inkesten bidez, ezagutzeko zer profil eta zer gastu-eredu duten Nafarroara goi-denboraldian ailegatzen diren bisitari turistikoek. Besteak beste, informazio gehiago lortu gogo da honi buruz: bidaiarien profila, haien bidaia eta erosketa ohiturak, Nafarroara eginiko bisitaren ezaugarriak, lekuaz egiten duten balorazioa eta gastuaren analisia. Halaber, informazio hori lortu gogo da turistak diren (Nafarroan gaua ematen dutenak) edo txangozaleak diren kontuan hartuta.

Informazio hori oinarria izanen da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren erabakiak planifikatu eta hobetzeko, marketin eta merkaturatze ekintzei dagokienez eta produktu turistikoa sortzeari dagokionez.

Helburuak:

Informazioa edukitzea Nafarroako goi-denboraldiko bisitari turistikoaren profilari buruz, eta haren bisita ezaugarritzea, erabakiak hobetzeko eta planifikatzeko marketin eta merkaturatze ekintzei dagokienez eta produktu turistikoa sortzeari dagokionez. Jakitea zer profil soziodemografiko eta zer bidaia-ohitura duten Nafarroa goi-denboraldian bisitatzen dutenek eta haien bisita ezaugarritzea. Jakitea zenbateko gastua egiten duten Nafarroan goi-denboraldiko bisitariak, nola banatzen den, eta kalkulatzeko haien bisitaren eragin ekonomikoa. Jakitea zer balorazio egiten duten bisitariak Nafarroaz helmuga turistiko gisa, indarguneak eta ahulguneak identifikatzea hobekuntza eta sustapen ekintzak egiteko.

Aldagai nagusiak:

Sexua, turista/txangozalea, Espainiako egoiliarra, atzerriko egoiliarra, Nafarroako egoiliarra

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo
Zuzendaritza Nagusia

Kodea: 2200504

Izena: Behe-denboraldiko bisitari turistikoaren profilaren azterketa, gastu datuak bilduta

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040403 Turismoari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarentzat, funtsezkoa da jakitea nolako profila duen Nafarroa bisitatzen duen turistak, marketin eta merkaturatze ekintzak planifikatzeko eta haren neurrirako produktuak egiteko. Nafarroa behe-denboraldian bisitatzen duen turistak desberdintasun kualitatibo garrantzitsuak ditu oporraldiko goi-denboraldian bisitatzen gaituenaren aldean. Behe-denboraldian bidaiaren segmentu desberdinak identifikatzen dira, motibazio desberdinak dituztenak, hala nola negozio-bidaia, osasun arazoak dituen bidaia, biltzar eta bileretako turista, asteburuko ihesaldia egiten duen turista, etab. Funtsezkoa da jakitea zer profil duten turista horiek, nola jokatzeko duten eta zenbat gastatzen duten, behar bezalako planifikazioa eta ekintzak egiteko.

Helburuak:

Behe-denboraldiko bisitarien profila ezagutzea. Segmentuak identifikatzea bidaiaren motibazioaren arabera eta tipologia horiek ezaugarritzea. Turisten jokabidea eta haien bidaia-ohiturak ezagutzea segmentuaren arabera. Turisten gastu turistikoa zenbatestea segmentuaren arabera. Jakitea zer balorazio egiten duen turistak Nafarroako egonaldiaz.

Aldagai nagusiak:

Sexua, bidaiaren motibazioa/bidaiaren segmentua, jatorria (nazionala/nazioartekoa)

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo
Zuzendaritza Nagusia

Kodea:

Izena: Nafarroako eskaintza turistikoa ezaugarritzeko azterketa

Gaia: 04 Industria, merkataritza eta zerbitzuak

Azpigaiak: 040403 Turismoari buruzko beste informazio batzuk

Azalpena:

Eragiketa honen jatorrian dago hobeki jakin behar dela zein den eskaintza turistikoa, nola ezaugarritzen den eta nolako eboluzioa duen denborarekin. Turismo Behatokitik turismoaren zenbait neurketa egiten dira, gehienak eskarian zentratuak, eta eskaintzari dagokionez, adierazle batzuk baino ez dira aztertzen, eskura dauden establezimenduei edo plazen eskaintzari buruz. Nolanahi ere, ikusi eta ezagutu behar da nolako eboluzioan duten denborarekin honako hauek besteak beste: lan egiten duten pertsonen bolumena, kontratazio motak eta ikasketa maila, enpresen forma juridikoa, lurraldeko banaketa, egiten diren inbertsioak, marketin eta merkaturatze bideak, jasangarritasun osagaiak eta enpresa turistikoen kudeaketaren ekonomia zirkularrarenak, gobernantza eta parte-hartzea, etab.

Helburuak:

Nafarroako eskaintza turistikoa ezaugarritzea zenbait parametroren bidez eta ikustea nola eboluzionatzen duen denborarekin. Marketin eta merkaturatze bide desberdinak identifikatzea. Segmentu eta merkatu nagusiak ezagutzea, Nafarroako eskaintza turistikoa osatzen duten enpresek behar dituztenak. Prestakuntza beharrak identifikatzea. Antolaketa eta gobernantza sareak ezagutzea, eta jakitea nola ulertzen duten sektore publikoaren eta pribatuaren arteko koordinazioa. Beharrak, ahuleziak, aukerak eta indarguneak identifikatzea. Jakitea norainoko konpromisoa duten ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin eta zer ekimen duten enpresek.

Aldagai nagusiak:

-Eskualdea

-EJSN

-Jarduketa eremua: ostatuak, jatetxeak, jardueren enpresak, bitartekaritza, elkarteak.

Lurralde **desagregazioa** **zabalkundean:** Nafarroa 2000 Zonifikazioa

DEPARTAMENTUA: Hezkuntza
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Hezkuntza ZN. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua. Ikasketak Antolatzeko Atala

Kodea: 2200314

Izena: Unibertsitatez kanpoko ikasketak: graduatuak

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030401 Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

Azalpena:

Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko emaitzen zerrenda, bereizten dituena ikasmila gaitzen duten ikasleak eta ez dutenak, edo graduatzen direnak eta ez direnak, eta gaitzeko irakasgairik duten edo ez.

Helburuak:

Zerrendatzea zenbat graduatu diren Nafarroan Espainiako hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan.

Aldagai nagusiak:

Irakaskuntza, irakaskuntza maila, IEHP / modalitatea / aukera, espezialitatea, titulartasuna, emaitza akademikoak, sexua, ebaluatua, ikasmila gaitzen duen, ez duen gaitzen ikasmila, irakasgai guztiak gaitzen dituen, irakasgaiak gaitzeko dituen, matrikulatuak, aurkeztuak, gaitituak, tituludunak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Nafarroa

DEPARTAMENTUA: Hezkuntza
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Hezkuntza ZN. Hezkuntzako Ikuskapen
Zerbitzua. Eskolatzeko Bulegoa

Kodea: 2200313

Izena: Unibertsitatez kanpoko ikasketak: matrikula

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigaiak: 030401 Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

Azalpena:

Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleen zerrenda, zenbait aldagai bilduta, hala nola irakaskuntza, hizkuntza-eredua, adina, sexua, etab.

Helburuak:

Zerrendatzea zenbat matrikulatu diren Nafarroan Espainiako hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan

Aldagai nagusiak:

Titulartasuna, irakaskuntza, adina, ikastaroa, sexua, modalitatea edo programa/aukera (IEHP / modalitatea / aukera), programa eleaniztuna, ikasmaila gaitzea, espezialitatea, atzerriko hizkuntzak, hizkuntza-eredua, hezkuntza-laguntzako berariazko premia, ikasle berrien sarbidea, atzerriko nazionalitatea, zerbitzu osagarriak

Lurralde

desagregazioa

zabalkundeak:

Herriak

DEPARTAMENTUA: Hezkuntza
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Hezkuntza ZN. Hezkuntzako Ikuskapen
Zerbitzua. Ebaluazio Atala

Kodea: 2200312

Izena: Unibertsitatez kanpoko ikasketak: Ikastetxeak, ikastetxeen direktorioa

Gaia: 03 Gizartearen estatistikak

Azpigai: 030401 Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza

Azalpena:

Nafarroan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeen zerrenda, hauen arabera sailkatuta: araubidea, titulartasuna, ikastetxe mota, ematen dituzten irakaskuntzak eta araubide ekonomikoa.

Helburuak:

Zerrendatzea zenbat ikastetxe, unitate eta zerbitzu osagarri dituzten Nafarroan Espainiako hezkuntza sistemako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek

Aldagai nagusiak:

Araubidea, titulartasuna, ikastetxe mota, ematen diren irakaskuntzak, araubide ekonomikoa, unitateak, unitate itunduak, unitate mota, IEHP / modalitatea / aukera, espezialitatea, herria

Lurralde

desagregazioa

zabalkundean:

Herriak

DEPARTAMENTUA: Hezkuntza
ZUZENDARITZA NAGUSIA EDO UNITATE PAREKATUA: Hezkuntza ZN. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua. 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Kodea: 2200404

